

**PSIKOLOGIA**

**Oihane BERNARTE ATXA**

**GIZARTERATZE TREBETASUNEN  
TRATAERA LEHEN HEZKUNTZAN:  
ANALISIA ETA PROPOSAMENAK**

***GBL 2013***

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Gizarte eta Gizarte Zientzien Fakultatea

***Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua***

# **Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

Gradu Bukaerako Lana

**GIZARTERATZE TREBETASUNEN  
TRATAERA LEHEN HEZKUNTZAN:**

**ANALISIA ETA PROPOSAMENAK**

Oihane BERNARTE ATXA

**GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**

**Ikaslea**

Oihane Bernarte Atxa

**Izenburua**

Gizarteratze trebetasunen analisia Lehen Hezkuntzan. Analisia eta proposamenak

**Gradua**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

**Ikastegia**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Zuzendaria**

Roberto Soto Valle

**Saila**

Psikologia

**Ikasturte akademikoa**

2012/2013

**Seihilekoa**

Udaberria

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu hezkuntzari

buruzko ideia orokor bat izan eta proiektua aurrera eramateko pausuak zuzenak izan daitezzen. Proiektu hau egiterako orduan ekarpen gehien eskaini duen irakasgaia 'Oinarri psikologikoak: gizabanakoa eta gizarte ingurunea' izan da, gizarte trebetasun eta gaitasun kontzeptuak hobeto ulertzeko oinarriak ikasi izan dira, eta kontsultatuko liburuen ulermen maila sakonagoa izateko aukera eskaini du. Horretaz gain, beste irakasgaietan, bai soziologiari buruzko gaiak, bai ikastetxeen organizazioari buruzkoak tratatu dira, ezinbestekoak ez badira ere, lanaren testuinguruaren inguruan egindako hausnarketetan lagungarri izan dira.

Didaktika eta diziplinako moduluei dagokionez, kasu honetan, psikologiarekin zerikusia duen proiektu enpiriko bat izanik, didaktika eta diziplinako moduluek ez dute erlazio zuzena aurrera eramandako ekintzekin. Baina zentzuzkoa den moduan, irakasgai hauetan ikasiriko kontzeptuek beti aberasten dute ikaslearen ikuspuntua, eta honek bere ondorio positiboak ditu garrantzi handiko lanak egiterako orduan. Materien didaktika, eta gai transbertsalen transmisioari buruzko ezagupenak oso interesgarriak izan dira lan hau egiterako orduan.

Halaber, Practicum moduluak eta ikastetxetako egonaldiek berebiziko garrantzia izan dute ikasleen prestakuntza prozesuan zehar. Zuzenean ikusi ahal izan da ikastetxeen antolamendua, funtzionamendua, irakasleen teknika pedagogikoak, etab. Proiektua bideratzerako orduan, errealistak eta posibleak diren helburuak zehazten lagundu izan du, proiektua errealitatearekin lotzen eta ondorioz erabilgarria eta probetxugarria izan daiteken lan baten aukeraketa ahalbidetu du.

## **Laburpena**

Gradu amaierako lan honetan, Hezkuntza erakundeetan landutako Gizarte Trebetasunen inguruko ikerketa gauzatu da. Nafarroan barna kokaturiko ikastetxe ezberdinetan, Lehen Hezkuntzako tutoreek jorratutako gizarte trebetasunak eta lanketa hauen maiztasuna hartu da oinarri moduan. Honetarako, gaitasun sozial eta gizarte trebetasun kontzeptuen inguruan informazioa jaso eta ezagutza baliabideak jorratu ondoren, galdetegiak prestatu izan dira. Hauetan agertzen diren item bakoitzak giza-trebetasun bati egiten dio erreferentzia. Ahalik eta ikastetxe gehienetara eraman dira, Lehen Hezkuntza etapa osoko tutoreek bete zezaten. Galdetegien bidez jasotako datuen analisia egin ahal izateko, informatika-programa (SPSS) eta kalkulu estatistiko ezberdinez baliatu izan da. Honela beraz, tutoreek egunerokotasunean aurrera eramandako jardunean, gaia jorratzeko orduan orokorrean aurkeztu ohi diren gabezi edo desoreketatik ondorioak atera dira gero hauetan proposamenak egin ahal izateko. Amaitzeko, proposamenetan gaia jorratzeko teknika eta adibide ezberdinez osaturiko fitxak erantsi dira, tutoreen jarduna orientatzeko baliabide bezala.

*Hitz gakoak:* gaitasun soziala; gizarte edo gizarteratze trebetasuna; asertibitatea; autokontzeptua; autoestimua.

## **Abstract**

The aim of the present Degree Thesis has been to accomplish a research about the treatment of social skills in educational institutions, based on the specific social skills treated by the tutor at Primary Education classes, as well as the frequency the application of these activities. In order to achieve this purpose, the first step has been to collect information related with social competence and social skills concepts. After studying the theoretical resources, a number of questionnaires have been written, so that each social skill is related with one item. These questionnaires have been delivered to the greatest number possible of Educational Institutions, in such a way that could be completed by all the tutors in Primary Education. The next stage has consisted of gathering and analyzing the data with computing software (SPSS), using

various statistic calculations. In this way, different conclusions have been obtained from the general lack and imbalance of daily activities performed by tutors. This fact has allowed to offer a number of proposals, in the form of techniques and examples to work these skills, presented as files so that could serve as orientation for tutors.

*Keywords:* social competence; social skill; assertiveness; self-concept; self esteem.

## **Resumen**

En el presente Proyecto Fin de Grado, se ha llevado a cabo una investigación sobre el tratamiento de las Habilidades Sociales en las instituciones educativas, basándose en las habilidades concretas tratadas por los tutores de Educación Primaria, así como en la frecuencia de aplicación de dichas actividades. Para la consecución de este fin, se ha recabado información referente a los conceptos de competencia social y habilidad social, y una vez estudiados los recursos teóricos, se han redactado una serie de cuestionarios, donde se presenta una habilidad social por cada ítem. Se han entregado los cuestionarios en el mayor número posible de Centros Educativos, de manera que fueran rellenados por los todos los tutores de la etapa de Educación Primaria. El siguiente paso a consistido en recoger y analizar los datos mediante programas informáticos (SPSS), haciendo uso de diversos cálculos estadísticos. De esta manera, se han obtenido conclusiones a partir de las carencias y desequilibrios generales aparecidos en las actividades diarias llevadas a cabo por los tutores. Esto ha permitido ofrecer una serie de propuestas consistentes en técnicas y ejemplos para trabajar estas habilidades, presentadas en forma de fichas, de forma que puedan servir de orientación al tutor.

*Palabras clave:* competencia social; habilidad social; asertividad; autoconcepto; autoestima.

# Aurkibidea

## Hitzaurrea : Helburuak eta aurrekariak

<b>1. Marko teorikoa</b>	<b>3</b>
1.1. Definizio bakar eta unibertsalaren falta	3
1.2. Gizarte trebetasunen garrantzia (Gizarte-Eskolan)	9
1.3. Arazoak Gaitasun Sozialean	<b>12</b>
1.4. Hezkuntza - Legedia	16
1.4.1. Gizarte trebetasunen trataera legedian	16
1.4.2. Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculum-a	17
1.5. Irakasteko beharra eta metodoak	19
1.5.1. Gizarteratze trebetasunak irakasteko beharra	19
1.5.2. Irakaskuntza programak	21
<b>2. Metodoa</b>	<b>29</b>
2.1. Parte-hartzaileak	29
2.2. Materiala	29
2.3. Prozedura	31
2.3.1. Proposamenak egiteko kontuan hartutako irizpideak	32
2.3.2. Datuen trataera estatistikoa	33
<b>3. Datuen emaitzak</b>	<b>35</b>
3.1. Gizarteratze trebetasunak	35
3.1.1. Analisi orokorra	35
3.1.2. Alor orokorrak	35
3.1.3. Azpi-alorrak eta galderak	36
3.2. Metodo zehatzen erabilera	42
<b>5. Ondorioak</b>	
<b>5. Proposamenak</b>	<b>51</b>
5.1. Landu beharreko Gizarteratze trebetasunak	51
5.2. Entrenamendu paketea	60
5.3. Wntrenamendurako irakaskuntza fitxak	64



## **Eranskinak**

**Eranskinak I**

**Eranskinak II**

**Eranskinak III**

**Eranskinak IV**

**Erreferentzia bibliografikoak**



## **1. HITZAURREA: HELBURUAK ETA AURREKARIAK:**

Psikologia eta Pedagogian, gizarte trebetasunen hezkuntzarako beharra handiagoz joan da, arau teorikoak ez ezik, praktikoak diren baliabideen eta gizartean moldatzeko jarrera egokien premia hain zuzen ere.

Jokabide interperstonalak eskolan zuzenean ez ekitearen atzean arrazoi ezberdinak daude: eskolaren helburu nagusia aspektu akademikoak lantzea dela pentsatzea; familiaren edo beste instituzio batzuen erantzukizuna dela pentsatzea; jokaera sozialen irakaskuntza, inolako irakaskuntza sistematikorik gabe, espontaneoki edo ahozko heziketaren bidez aurrera eramaten dela pentsatzea; gaiaren garrantzia eta irakaslearen inplikazioa zalantzan jartzea; irakasleen aldetik, gaia zaila ikustea eta aurrera eramateko prest ez sentitzea.

Gaur egun, eskolak ikasleengan defizit eta gizarte trakestasun arazoaren areagotzea hauteman izan du. Honek beraz, esku-hartzerako estrategia berriak exijitzen ditu. Ikasleei berdinkide zein helduekin era egokian erlazionatzea hezkuntzaren helburu argi bat den aldetik, azken honek egungo gizarteratze beharrei aurre egin behar dio, irakaskuntza metodologiak moldatuz eta eguneratuz.

Eskola beraz, haurren garapen sozial eta gizarte trebetasunak sustatzeko ingurune garrantzitsuenetarikoa kontsideratu dezakegu.

Gradu amaierako lan moduan, Gizarte Trebetasunak Hezkuntza eremuan lantzearen ikerketa burutu da kasu honetan. Gaia aukeratzearen arrazoi nagusia, psikologia sailean landutako edukien inguruan interesa izatearena da batik bat. Hala ere, graduan zehar curriculum sakonean landu den arren, curriculum ezkutuaren kontzeptua eta honek praktikan dakarren eragina sakonago lantzea interesgarria izan da.

Hezkuntza curriculum osatzen duten arloez aparte, bertan agertzen diren oinarrizko gaitasunak hauen barne lantzearen garrantzia ezin da alde batera utzi beraz. Honela bada, hauek praktikara eramateko, zehazki gaitasun sozialaren ingurukoak, sakonki behatzea premia kotzat hartu izan da, iraganean irakasle moduan praktikotasunera eraman ahal izateko.

Gizarte trebetasunek garrantzi berezia duen arren, eta instituzio akademikoetan hauek lantzearen beharraz kontzientzia baden arren, errealitatean hau gauzatzea zaila suertatzen da kasu batzuetan. Honengatik, zonalde ezberdinetan sakabanaturiko Lehen Hezkuntzako eskoletan trebetasun sozialen lanketa ikertzea eta gabeziak dauden alor eta azpi-alorretan proposamen metodologikoak egitea izango litzateke lan honen helburu nagusietako bat.

Laburki esatearren, ikerketa honekin lortu nahi dena da, Lehen Hezkuntzako tutoreek irakaskuntzarako tresna berriak eskura izatea eta horren landua egon ohi ez den gai honetan gehiago trebatzea, praktikara erosotasunez eramanez ahal izateko. LOE-n adierazten den moduan, ikasle guztien garapenera ailegatu behar dira irakasleak osotasunean. Ez dira soilik aspektu akademikoaren garapenean zentratu behar, akademikoak ez diren alor horietan ere garapena sustatzea ezinbestekoa da.

Lana aurrera eramateko graduan zehar ikasitako ezagutzak birziklatu eta erabiltzeaz gain, autore ezberdinen liburu, artikulua zein web orrialde ezberdinez baliatu izan da.

# 1. MARKO TEORIKOA

Atal honen lehenengo azpi-atalean, Gaitasun Sozialaren eta Gizarteratze Trebetasun kontzeptuen inguruan eztabaidatuko da. Bigarren azpi-atalean, kontzeptuen inguruan sakonago hitz egingo da, hauen definizioaren hurbilketara ailegatzeko, *jokaera moldagarria* eta *asertibitate* terminoak aurrekoekin duten erlazioarekin lotuz. Hirugarrenean, Gaitasun sozialaren inguruko arazoak planteatuko dira eta laugarrenean, hauekin zuzenean lotuko da Hezkuntzako legediaren analisi orokor bat Hezkuntza Curriculum-ean murgilduz. Azkenik bostgarrenean, irakasteko beharraren hausnarketa egingo da, metodo edo ikaskuntza programa ezberdinen azalpenarekin.

## **2.1. Definizio bakar eta unibertsalaren falta:**

Eztabaida egon izan da “gaitasun sozial” eta “gizarteratze trebetasunak” kontzeptuen inguruan. Ez da definizio unibertsal eta bateratu bat lortu, ezta adostu ere. Hala ere, bada bibliografia ugari non gaitasun soziala eta giza-interakzio trebetasuna definitzen eta deskribatzen ibili diren. Hori bai, ikertzaile ezberdinen aldetik, beren eran kontzeptualizatu izan dituzte gaitasun interperstonalak.

Irizpide absolutu baten falta argi geratzen den arren, denok ulertzen dugu modu intuitiboan gizarte trebetasunak zer diren (Tower, 1984). Definizio unibertsal honen faltak erakusten du beraz, gizarte jokabide trebetasuna ezin dela kontzeptu bateratu edo orokortua kontsideratu, egoeren arabera determinaturik baitago. Honek esan nahi du, egoera ezberdinen ezaugarrien arabera, hauen zehaztasunaren arabera, *jokaera* bat edo beste jarriko direla praktikan.

Meichenbaum, Butler eta Grudson-ek ere, adierazten duten gaitasun sozialaren definizio bakarra garatzeko ezintasuna, partzialki testuinguru aldakor baten menpe baitago (Meichenbaum, Butler eta Grudson, 1981).

Lehenengo gauza beraz, gaitasun soziala eta giza-interakzio trebetasun kontzeptuen arteko ezberdintasunak zehaztea beharrezkoa da.

Gaitasun sozial terminoa, norberaren inguruko eragile edo agente sozial baten (irakasle, guraso, berdinkide) judizio baloratzailerokor bati egiten dio erreferentzia. Agente sozial hau judizio informal bat egiteko postuan egon behar da. "Jarrera bat kompetente baloratu ahal izateko, egokia izatearekin aski izaten da, ez da zergatik ez-ohikoa den zerbait izan behar" (Mc. Fall, 1982, 12). Beraz, jokaera sozialak gizarte testuingutu konkretu batetara egokitzeari buruz ari da. Beharrezkoak dira judizio baloratzailerak eta hauek ezberdinak izanen dira testuinguru batetik bestera, kultura bakoitzak bere arau eta baloreak baititu.

Honela bada, gaitasun soziala testuinguruko gizarte eragileengan ematen diren jarrera zehatzen edo gizarte trebetasunen inpaktua dela esan daiteke.

Gizarte trebetasunak bestetik, izaera interpersonaleko eginkizunak egokitasunean burutzeko beharrezkoak diren jokaera zehatzak dira. Adibidez, lagunak egitea edo eskaera bat errefusatzeara.

Honela bada, giza-trebetasun kontzeptuarekin ulertzen da jarrera interpersonaleko konplexuen talde bat dela, besteekin harremanetan aktibatuta egiten dena.

Gizabanakoak hautaturiko estrategiei egiten die erreferentzia alde batetik, eta erakutsitako trebetasunen mailari bestetik, egoera ezberdinen erantzunetan eta egunerokotasunean topaturiko eginkizun zein lanetan (Pérez, 1998). Gainera, ez da trebeagoa izanen jokabide gehien dituenak, baizik eta testuinguruko seinaleak jaso, hauteman eta hauek diskriminatzeko gai dena, egoera bakoitzean jokamolde aproposenak aukeratuz.

Hau ikusita esan liteke gaitasun soziala kontzeptu hipotetiko eta teorikoki globala dela, baita dimentsioan itza eta zabala ere. Gizarte trebetasunak aldiz, konstruktuen barne kontsidera ditzakegu.

Argi geratzen da, beraz, gaitasun soziala testuinguruko eragileengan ematen diren jokaera zehatzen (trebetasun sozialen) eragina dela (Monjas, 1996). Gizarte trebetasunak ordea, jarrera sozial zehatzen multzoa da eta jarrera sozial kompetentearen oinarriak osatzen duten. Azken finean, besteekiko (berdinkideekiko, helduekiko) behar bezalako erlazio efektiboak izateko beharrezkoak dira haurtzaroko giza-interakzio trebetasunak. Besteekiko elkarrekin sortzen diren, testuinguru ezberdinetan egindako parte-hartze

aktibotik eta erlazio arrakastatsuak dira gizarte garapen eta ezagutza sozialerako (Pérez, 1998).

Laburbilduz, beraz, “gaitasun” terminoak orokortasun ebaluatzailea adierazi nahi du eta “trebetasun” kontzeptuak bestetik, portaera edo jokabide zehatzak.

Umezaroko gaitasun sozialean, jokabide interaktiboaren ingurukoak ez diren alderdi asko aipatzen dira. Hauek, norbanakoak testuinguru sozialean burujabe jokatzeko beharrezkoak dituen treberasunei egiten die erreferentzia. Hauen barne, Pérez honakoen inguruan aritzen da (Pérez, 1998):

- Autolaguntzarako trebetasunak (jantzi, elikatu).
- Gizartean harremantzeko eta erlazionatzeko portaerak (autobusa hartu, taberna batetara joan, e.a.).
- Deiarazko edo alor bokazionalak.
- Tebetasun interpertsonalak edo sozialak.

Kasu honetan, gaitasun soziala jokaera moldagarriaren azpi kategoria bezala tratatuko dugu, jokaera interpertsonalari dagokiona hain zuzen ere.

Jokaera moldagarriak, norbanakoak testuinguru sozialean funtzionatzeko beharrekotrebetasun sozialei erreferentzia egiten diela kontsideratzen da beraz.

Asertibitate terminoak ere nahasteak eragin ditzake, sentipenen adierazpen eta autoafirmazio jokaeretara mugatzen baitzen, baina aspektu hauek trebetasun sozialen alderdiaren barne daude gaur egun (*Gizarteratze trebetasunak curriculo-an*. [Eskura (2013/05/29): [www.doredin.mec.es](http://www.doredin.mec.es)]). Hala ere, esanahi orokorra ulertzearen, asertibitateak jokabide interpertsonal moduan ulertua, zera inplikatzten du: sentimendu propioen zuzeneko adierazpena alde batetik, eta norbanakoaren eskubideen defentsa bestetik, beti ere besteen eskubideak ezeztatu gabe.

Hau da, kontzeptu mugatua da, gizarteratze trebetasunen kontzeptu zabalagoaren barne integratzen dena: Jokabide asertiboa, jokabide

interpertsonal kontzeptuaren barne dagoen alor garrantzitsu bat da.

Asertibitatearen inguruan jarraituz, azken finean esan liteke, jarrera interpertsonal batek, norbanakoaren sentimendu propioen adierazpen zuzena inplikatzeko duela. Honela bada, asertziozko jarreraren definizio bat hurrengo litzateke: gizabanakoak egorritako sentimenduak, desirak, iritziak, eskubideak etab. adierazten duten kontestu interpertsonal jakin bateko jokaeren multzoa. Baina aldi berean, beste gizabanakoen eskubideak, iritziak, sentimenduak etab. errespetatzen dira. (Pérez, 1998; Calatayud, *Tutoretza jardunaren egitasmoa* (2) [Eskura (2013/05/11): [www.lavirtu.com](http://www.lavirtu.com)]).

Nolanahi ere, gi.treb-en kontzeptua ulertzeko, argigarria izan liteke Sanchiz eta Traverrek ematen dituzten ezaugarri orokorrak ematea (Sánchez eta Traver, 2006):

**1.** *Ikaskuntzaren bidez bereganatzen dira batik bat (behaketa, imitazioa, entsaioa eta informazioaren bidez).*

Haurra garatzen eta ikasten duen testuingurua, aldagai erabakigarria da. Beren gisakoekin erlazionatzen jakinez jaiotzen den umeak ez da. Gizartean, eskolan eta familian, gizarteratze prozesu “naturala” gauzatzen ari den bitartean, trebetasunak eta jokabideak ikasten joaten dira (Monjas eta De la Paz, 2000). Honek baliatzen du haurra efektiboki eta era egokian besteekin harremanatzea.

**2.** *Ahozko eta ez ahozko burubide edo portaerak barne hartzen ditu.*

Errefortzu soziala indartzen dituen ahozko eta ahozkoak ez diren portaerak sartzen dira bertan; gizarte ingurunearen erantzun positiboak.

**3.** *Iniziatiba eta erantzun egoki eta ikasiak barne hartzen ditu.*

Trebetasun sozialak, testuinguru interpertsonaletan ematen direnez gero, beste pertsona edo pertsonekin (gisakoekin edo helduekin) erlazionatzean ematen dira. Honela bada, bistakoa da beste batzuk inplikaturik daudela, eta horregatik hauek kontuan hartu beharrekoak dira ere bai, portaera



interpertsonala partaideekiko interdependientea baita. “Giza elkarreragina, elkarrekikoa da eta beharrezkoa du bi gizabanako edo gehiagoren arteko portaera intererlazionatua” (Monjas, 1996, 30). Kontuan hartu beharrekoak dira beraz :

(a) Iniziatiba norbanakoaren aldetik: Interakzio batetarako oso garrantzitsuak dira hauek, geroz eta trebeagoak eta egokiagoak izateak baldintzatuko baitu, beste pertsona baten erantzuna izatearen probabilitatea.

(b) Erantzuna besteen aldetik: Besteen inimizioei erantzunak emateak ere izugarriko garrantzia du. Itxiak edo barnerakoiak diren hurrek, gisakoek edo helduek hasitako inimizioei ez erantzuteko joera dute, edo hitzezkoak ez diren erantzunak ematen dituzte. Honek eragiten du, besteek haur honekiko inimiziatiba portaerak gutxitzea, egoera ez baita indargarria hauentzat.

#### **4. Helburu edo erantzunei orientazioa:**

Pérez (1998) eta Sánchiz eta Traverrek (2006) bat egiten dute gizarte trebetasunak helburu edo errefortzu zehatzen lorpenera orientaturik daudela aipatzean:

- Testuinguruko errefortzuak (materialak eta/edo sozialak).
- Errefortzu pertsonalak (auto-errefortzua, autoestimua).

Hiru motatako ondorioak identifikatu daitezke hemen eta “helburu hauen balioa denboraren, egoeren eta aktoreen menpe dago” (Linehan, 1984, 151):

- Erantzunen helburuak lortzeko eraginkortasuna.
- Elkarrekintzan ari direnarekin erlazioa mantentzearen edo hobetzearen eraginkortasuna.
- Gizarte trebetasunetan iaioa denaren autoestimua mantentzeko eraginkortasuna.

#### **5. Giza-trebetasunak guztiz elkarkariak dira eta elkarrekikotasun edo korrespondentzia efektiboa eta egokia eskatzen du:**

Portaera soziala jatorriz interaktiboa den aldetik, jokabide interdependientea izatera eta testuinguru zehatz bateko solaskidearen jokabidera moldatzera eramaten du (Fernández-Ballesteros, 1994).

Mintzaldiak jarraitu dezan, elkarrekikotasuna ezinbestekoa da, hau da, honen partaide direnen artean erantzun alternatibo aunitz ematea. Hitz gutxitan esanda, erantzunen elkar-truke konstante eta berdintsua ematea.

Guzti honengatik, elementu ezberdinak kontuan hartzekoak dira, hala nola, norbanakoa eta besteak eta egoera eta momentuan bete beharreko jolas edo ariketa soziala (elkarrizketa bat hasi, errefuxatzeak maneiatu, jolas bat beste batekin partekatu, e.a.)

**6. *Gizarte trebetasunak praktikan jartzea, testuinguruaren ezaugarri ezberdinen menpe dago (adina, sexua eta hartzailearen estatusa bezalako faktoreek norbanakoaren portaera sozialean eragiten du).***

Gizarte trebetasunak, egoera zehatzei aurre emandako erantzun zehatzak direla eta, portaera sozialaren eraginkortasuna elkarrekintzaren testuinguru espezifikoaren eta bere parametroen menpe dago (Pérez, 1998).

Portaera inter-pertsonala, parte hartzen duten pertsonen (adina, sexua, helburuak, erlazioa, jakin-minak) eta momentuko testuinguru zehatzaren (gela, parkea, e.a.) menpe dago beraz. Jokaera sozial gutxi aplikatu daitezke era egokian egoera eta testuinguru guzti-guztietan, arau sozialak nahiko aldakorrak baitira eta kulturaren eta egoera zehatz bakoitzeko faltoreen menpe baitaude (Monjas eta De la Paz, 2000).

Ondorioz, edozein elkarrekintzetan, erantzunak aldagai askoren menpe daudenez gero, ikasleek ere egoerari haien jarrerak, sinismenak, ahalmen kognitibo eta elkarrekintza berdingabea eskaintzen dio (Wilkinson eta Canter, 1982).

**7. *Egoeraren arabera berezitasuna, malgutasuna eta aldakortasuna:***

Jada azaldu dugun moduan, portaera sozialaren eraginkortasuna, elkarrekintzaren testuinguru eta egoera zehatzaren parametroen menpe dago.

Egoeraren arabera berezitasunak, ikasleek haien helburuen arabera jokaerak egokitzeko ahalmenean datza. Baita haien kapazitate propio eta testuinguruan planteatzen diren beharrak ere (Sánchez eta Traver, 2006 ). Horrenbestez, ikasleek beharrezkoa dute malguak eta aldakorrak diren jokabideen errepertorio zabala izatea.

Trebetasun sozialak, oso "jokaera malguak dira, moldatu beharreko

jokabide hautsi ezin eta estereotipatu batekin kontrajartzen direnak, honela testuingurura eta hizketakidearen jokabidera zehaztasunez bat etortzeko” (Pérez, 1998, 4).

Honela bada, prozesu hau nahiko malgua eta aldakorra da, norbanakoaren edo talde baten behar espezifikotara egokitu ahal izateko eta baita heterogeneoak diren egoera ezberdinetan suertaturiko arazoak ekiditeko. Hau honela, ikaslegoak beren portaera, helburu eta egoerak exijitzen dituen beharretara egokitzea ezinbestekoa da (Sánchez eta Traver, 2006). Ondorioz, jarrearen eredu moldaezinen eta estilo uniformearen erabilera ekiditea beharrezkoa da.

### **8. Pertsonak, aldaketaren eragile aktiboak.**

Ikaslegoa aldaketaren eragile aktiboa bilakatzen da zuzen-zuzenean (Pérez, 1998). Garrantzitsua eta ezinbestekoa da beraz, haien partetik prozesuaren onespenera eta ulermenera bultzatu beharra (imitazio ereduaren barne hartzea, taldeko parte-hartzea eta autoebaluaziorako irizpideen garapena, egiaztatzea eta errefortzua).

#### **1.2. Gizarteratze Trebetasunen garrantzia (Gizartean-Eskolan):**

XXI. mendean deialdi sendoa dago hezkuntza arloan, hezten ari garen pertsonak eta hauei eman beharreko hezkuntzaren orientazioari buruzko hausnarketa sakonak egitearen beharraren inguruan. (UNESCO, 1998 [Eskura (2013/05/18: [www.unesco.org/education/educprog/wche/declaration\\_spa.htm](http://www.unesco.org/education/educprog/wche/declaration_spa.htm)]; Sánchez eta Traver, 2006).

Gaur egungo gizarteek, herritartasun arduratsu bat gauzatuko duten gizabanakoen heziketa eskatzen dute. Beren ingurunean aktiboki parte hartzeko eta honen beharrei erantzunak emateko gai diren gizabanakoak. Arazo pertsonalei zein kolektiboari aurre egiteko behar adina trebetasun dituztenak.

Honela bada, ikuspegi eta irakaskuntza eredu berri baten beharra antzematen da, ikaslearengan zentratua, individualizazioaren eta sozializazioaren oinarritutako printzipio metodologikoak praktikan jartzeko gauza dena

(gizabanakoaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko, eta modu harmoniko eta oso batean elkar bizitzen erakutsiko diona).

Irakaskuntza eremu ezberdinetatik (Haur, Lehen, Bigarren eta Unibertsitate Hezkuntza) egiaztatzen hasia da, aniztasunaz arduratzeko beharra alde batetik, (Echeita, 2005; Moliner eta Sales, 2005) eta arazoak dauden egoeretan erantzunak emateko beharra bestetik, gehienetan arazo hauen arrazoa bizikidetasun edo besteekin izandako erlazio moduarekin zerikusia dutelarik (Serrano eta Quintero, 2002).

Hezkuntza, oinarri garrantzitsuenetarikoa da pertsonen garapenean eta giza eskubide, demokrazia eta bakearen lorpenean. Beraz, guztientzat eskuragarri izan beharko litzateke bizitza osoan zehar, garapen hau errealitate bihurtu ahal izateko. Honetarako, heziketaren alderdi eraginkorrenetako bat trebetasun sozialen irakaskuntza litzateke, ez baita autokontzeptua eta autoestimua bakarrik lantzen, gizarte interakzioak ere lantzen dira. Hots, alde batetik gizabanakoaren heziketa pertsonalean edota egoera indibidualean jartzen da arreta eta bestetik, besteekin komunikatzeko aukera emango duten gaitasunak irakasten dira, ahalik eta era eraginkorrenean. Honi esker, elkarbizitzen dugun pertsonetikiko erlazio egokiak mantentzea ahalbidetzen da.

Eguneroko esperientzia pertsonalak adierazten du, denbora luzea igarotzen dela interakzio sozialetan. Honetaz gain, erlazio sozial positiboak autoestimua eta ongizate pertsonalaren iturri nagusi dira. Era berean, gizabanakoaren gaitasun sozialak, gaitasun pertsonalari ekarpenak egiten dizkio. Honen arrazoietakoa bat hurrengoa da: “gaur egun, arrakasta pertsonala eta soziala erlazionatuagoa dago soziabilitatearekin eta gizabanakoaren gaitasun inter-pertsonalekin, honen gaitasun kognitibo eta intelektualekin baino” (Monjas, 1996, 25). Honenbestez, esan daiteke momentu honetan, gaitasun soziala ikerketa eremu emankorrenetako bat dela, eta indar nabaria izaten ari dela gaur eguneko psikologian.

Ikerketen emaitzek argi uzten dute trebetasun sozialek haurtzaroan duten garrantzia. Emaitza hauek jakinarazten dutena zera da, haurtzaroko gaitasun sozialek erlazio handia dutela egokitzapen sozial, akademiko eta psikologikoarekin, bai haurtzaroan, eta bai heldutasunean (Hops eta Greenwood, 1988; Ladd eta Asher, 1985). Emaitza horietaz gain, honakoa ere

azaleratzen da: Norbanakoak bere gisakoekiko erlazioetan izandako arazo goiztiarrek, erlazioa dutela nerabetasuneko eta heldutasuneko erlazio arazoekin. Halaber, nabaria da arazo interpertsonalak ezaugarri definitzaileak direla jokamolde eta emozio desoreketan: haurtzaroan, nerabezaroan edota heldutasunean izandako arazo psikologiko gehienen berezko sintomak, erlazio interpertsonalerako zailtasunak izan ohi dira.

Eskolak azken urteotan lehenetasuna izan du alderdi akademikoen igorpenean (trebetasun akademikoak), erantzukizun esplizitu eta argirik gabe ikaslearen gaitasun sozialari dagokionez. Jokaera interpertsonala, edo konkretuki, erlazio ineterpertsonaleko zenbait jokabide, oharkabetu eta bazterrean utziak izan dira (Monjas eta De la Paz, 2000). Ondorioz, ez dira zuzenean erakusten ikastetxean, edota irakaslearen irizpidearen arabera izan ohi dira. Eskolak, gizarteko balore nagusien igoerle gisa, arrakasta akademikoarekin zerikusia duten alderdi intelektualetan jartzen du arreta, alde batera utziz ongizate interpertsonal eta pertsonalerako portaeren irakaskuntza sistematikoa.

Eskola, ikasleentzako esparru edo eremu hurbila da, familia eta gizartearen artean kokatutakoa. Ikastetxearen funtzioetako bat hurrengoia izan beharko litzateke: ikaslearen eta honen ingurune soziokulturalaren integrazioa erraztea. "Ikasleaz arduratu eta behar dituen arretak eta zainketak eskaintzea ez da nahikoa, beharrezko esperientziak eskaintzea ezinbestekoa da, honen gizarteratze prozesuak aurrerapen egokia izan dezan" (Pérez, 1998, 6, 13).

Egile ezberdinen arabera, onarpen pertsonal baxua, gizarte ukapen edota isolamendua, gizarte trebetasun egokiak ez izatearen ondorio dira (Asher eta Hymel, 1991; Michelson eta beste batzuk, 1987). Ikasketa prozesuan, jokabide disruptiboak zaildu egiten du ikaskuntza, eta disruptibitate hau agresio mailetara iristen da. Estres foku garrantzitsua da beste ikaskideentzako, erlazio interpertsonalak eta eskolako errendimendua kaltetzen duelarik. Jokamolde erasotzaile honek sortzen dituen alterazioen inguruan beharrezkoa da prebentzioa eta trataera, gizarte trebetasunen irakaspenera erabiliz (Vallés, 1988). Oldarka edo erasoka jokatzeko duten gizabanako askok, indarkeriaren bidezko mehatxuez edota indarkeria fisikoaz baliatzen dira, gaitasun

linguistikoetan gabeziak dituztelako (Clemente eta Gil, 1985; Rimm eta Masters, 1974; Martinez Paredes, 1992).

Ikasle eredu honek interesa bereganatu du eskola komunitatean, eta gizarte trebetasunetan lan egiteko beharra argi uzten du, baina lanketa hau ez da irakaslearen esku-hartze espontaneoetatik abiatu behar. Honen ordeztu, prozesu kontzeptual eta ebaluatzaile bat finkatu beharra dago (errekurtsoak, teknikak, estrategiak), honen bidez era sistematikoan landu daitezkeen paraleloki bai trebetasun akademikoak, bai trebetasun sozialak. Horrela ahalbidetu ahal izango da ikasleen doikuntza pertsonala, beti ere interakzioa ematen den eremuaren, norbanakoarekin erlazionatzen den pertsonen, eta aurrera eramaten dituen ekintzen arabera.

### **1.3. Arazoak Gaitasun Sozialean:**

Gaitasun sozial egokia eta desegokia desberdintzeko, norbanakoak honako ezaugarriak izan ohi ditu:

-Gaitasun sozial egokia: haurtzaroan ikasketa eta gizarte lorpenei lotuta dago, baita ere ospea, onarpen maila edota garapen kognitiboarekin.

-Gizarte gaitasun eza: hurrengoekin erlazionaturik dago:

- Berdinekiko onarpen eza, ukapena edota isolamendua.
- Ikasketa arazoak: errendimendu maila baxua, porrota, absentismoa, bazterketa, adaptazio eza, autoestimu baxua, etab.
- Desdoikuntza psikologikoak eta haur psikopatologia: depresioa, babes eza.
- Gaztaroan adaptazio eza: gazte delinkuentzia, etab.
- Nerabezaroan edo heldutasunean izandako buruko gaitzak: alkoholismoa, suizidioa, toxikomaniak, etab.

Garrantzitsua da jakitea gizarte trebetasunen defizitak ez dituela besteekiko interakzio arazoak besterik sortzen. Horretaz gain, autoestimu

baxua eta depresioa sor ditzaketela. Bestalde, gizarteratze trebetasuna besteekiko onarpen handiagoarekin eta zeregin intelektualetan lortutako arrakasta pertsonalarekin lotzen da (Pérez, 1998).

Beste alde batetik, jarera arazoak, eskola errendimendu baxuaz gain, gazte delinkuentzia, edota adikziozko izaerak ere negatiboki erlazionatu izan dira gaitasun sozialekin (Sanchiz eta Traver, 2006).

“Haurren %5 eta %25-ak zailtasunak jasaten ditu erlazio interpertsonaletan eta “%5 eta %10-eko haurren taldea, beste ikaskideengandik ez dela hautatua izaten. Bestalde, haurren %20 alde batera utzia sentitzen da bere berdinkideengandik” (Monjas, 1996, 33).

Haurtzaroan ikaskideengatik baztertutako umeak, eta gehien bat errefusatuak direnak, haurtzaroan eta nerabezaroan arazoak izateko arriskuan egon daitezkeen taldean sartzen dira. Gaur egun datu kopuru anitz dago, trebetasun sozialen errepertorioa haurtzaroko onarpen sozialean erabakigarri direla adierazten dutenak. Sozialki trebeak diren haurrak, onartuagoak eta maitatuagoak dira beraien parekoen aldetik, hain trebeak ez diren haurrak baztertuak edo errefusatuak diren bitartean.

Aurretik adierazitakoaren arabera beraz, ez da neurritz gainekoa hurrengo adieraztea: umeen talde guztietan badago gaitasun sozialean arazoak dituen baten bat, eta honen ondorioz, arazoak ditu ere bai beste doikuntza edota adaptazio eremuetan. Ikasgela guztietan badago besteekin erlazionatzeko zailtasunak izaten dituen haurren bat, gaizki pasatzen eta besteekin gozatzeko ezintasuna sentitzen duena.

Haurtzaroko eta nerabazaroko trebetasun sozialekin erlazionaturiko arazoan sailkapen ezagunena gizarteratze gehiegikeria eta defizitaren artean ezberdintzen duena da hain zuzen ere (Monjas, 1996):

#### (1)Gehiegizko gizarteratzea:

Jarrera aktibo, disruptibo eta aparteko eredia da. Esperokoa baino maiztasun, intentsitate edo iraupen luzeagoarekin agertu ohi da. Gizabanako

hauek, orokorrean baztertutakoaren estatus soziometrikoa ematen zaien umeak dira. Ezaugarri hauek izan ohi dituzte:

- Neurritz gaineko “kanporatze” jarrerak dituzte (kanporantz zuzenduriko jokamoldeak, hauen ondorioak ingurugiro sozialak sufrituko dituenak).
- Puntuazio altuak jasotzen dituzte besteekiko interakzioetan, baina hauek negatiboak dira eta zigor kutsua dute.
- Ikaskideen kalifikazioetan deskribapen negatiboak izan ohi dituzte.
- Irakasleek ikasle agresibo eta hiperaktibo moduan ikusten dituzte.

## (2) Gizarteratze defizita:

Jokamolde inhibititu eta isilaren eredua da, orokorrean gizarteratze saiheste ereduekin bat egiten duena. Gizarteratze defizita erakusten duten gizabanakoei orokorrean, “ahaztuen” estatus soziometrikoa ematen zaie eta honako ezaugarriak izan ohi dituzte:

- Neurritz gaineko “barne” jarrerak dituzte (barnerantz zuzenduriko jokamoldeak, hauen ondorioak norbanakoak sufrituko dituenak).
- Puntuazio baxuak jasotzen dituzte besteekiko interakzioetan.
- Bere ikaskideak ahaztu egiten dira haur hauek eta beren deskribapenetan, modu neutroan edota interes gabekoan kalifikatu ohi dituzte.
- Irakasleek ikasle lotsati edo lasai moduan ikusi ohi dituzte.

Honez gain, hurtzaroko gizarteratze gaitasun eza azaltzeko 2 eredu nagusi aurkezten dira; jokaeren errepertorio defizit eredua eta interferentzia eredua (Monjas, 1996):

### *(1) Gaitasun defizit eredua, edo jokaera errepertorioen defizit eredua:*

Trebetasun sozialetan izandako arazoaren arrazoia, beharrezko jokamolde eta gaitasunen gabezia da, egoera interpersonal zehatz batean jarduteko.

Gerta daiteke testuinguru zehatz batean desiragarria litzatekeen ezagupenak ez izatea. Haur psikologian, hau izan da azalpen eredu erabiliena



eta hemendik ondorioztatu izan dira gaitasun hauen irakaskuntzarako ideia ezberdinak. Azalpen ugari daude beraz norbanako honen gaitasun interpertsonalen gabezia azaltzeko. Adibidez, indarketan errefortzu historia desegokia edota estimulazio eta ikaskuntza aukeren gabezia.

Hobeto ulertzearren, adibide bat izango litzateke jende ezezagunaren aurrean eskaintzen diotenari ezetz esaten ez dakien nerabe baten kasua; drogak adibidez. Inoiz ez badu inongo eredurik ikusi, edo inoiz ezetz erantzuteko modu ezberdinak ez bazaizkio erakutsi, ez du berak nahiko lukeen moduan erantzungo.

### (2) Interferentzia ereduak:

Azalpen eredu ugari bateratzen dira zera adierazten dutenak: norbanakoak badituela gaitasun zehatz hauen erreperitorioa, baina ezin ditu praktikan jarri faktore emozional, kognitibo edo motoreek oztopatzen dutelako hauen gauzatzea. Adibidez, norbaitek lagun talde batekin lan egin edo jolastu nahi izanez gero, badaki nola adierazi bere nahia, baina beldurra dio errefusari eta inhibititu egiten da.

Aldagai eragozle hauen artean (trebetasun sozial hauen lorpena blokeatu eta eragozten dutenak), hurrengoak daude adibideak ematearren: helburuak lortzeko itxaropen baxua, antsietatea, pentsamendu depresiboak, enpatiarako gaitasun desegokiak, beldurra, arazoak konpontzeko gaitasun urriak, pertzepzio defizita, gizarte diskriminazio defizita, itxaropen negatiboak, jokaera agresiboa, defenditzeko arazoak eta frustrazio pentsamenduak.

Eredu honen arabera, ageriko jarrera bat ez da nahitaez gaitasun sozialen adierazle izan beharrik. Baliteke norbanakoak egoera zehatz batean nola jokatu jakitea, baina antsietatearen ondorioz ez egitea, gaizki irtengo zaiola pentsatuz, edota beste helburu batzuk lortu nahi dituelako. Beraz, argi ezberdindu behar dira bi kasuak: egoera sozial zehatz batean nola jardun ez dakien haurra alde batetik, eta nola jardun badakiena baina huts egiten duena, bestetik.

Ondorioz, hurrengoa ondorioztatu daiteke: erlazio interpertsonalerako arazoak, erreperitorioko defizit edo gauzatze arazoaren ondorio dira, jokamolde sozial ezegokia, ikasketa sozial partikular batengatik edo honen

gabeziarengatik azaleratzen delarik. Beraz, gizarte trebetasun arazoak ikasketa prozesu akastun edo osatugabe baten ondorio dira. Arazo hau gainditzeko, haurrak faltan dituen errepertorioen ikaskuntza bultzatuko duten prozeduren aplikazio sistematikoa behar-beharrezkoa da. Gainera, haurrak dituen arazo partikularren ezagutza erabat oinarritzakoa da, arazo bakoitzak estrategia metodologiko zehatz baten beharra baitu.

Aurretik aipatutakoaren sintesi bat eginez, laburrean esan liteke gaitasun sozialak ikaslearentzat berebiziko garrantzia duela, bai orainaldiko funtzionamenduan eta bai etorkizunerako garapenean. Ondorioz, emoziozko trebetasun positiboak adierazten dituzten ikasleek ibilera hobea izan ohi dute eskolan, gizarte eta emozio eremuetan. Gizarteratze trebetasunak ezinbesteko baldintza dira ikaslearen sozializazio egoki bat aurrera eramateko, eta erlazio estua dute ikasketa prozesu eta garapen kognitiboarekin (Pérez, 1998).

#### **1.4. Hezkuntza-Legedia:**

##### *1.4.1. Gizarte trebetasunen trataera legedian:*

1990eko urriak 3ko LOGSE legearen arabera, hezkuntzaren helburuetako bat pertsonaren garapen pertsonala eta integrala lortzea da, hurrengo ikuspuntu ezberdinetan: garapen intelektuala, motorea, eta oreka pertsonal eta afektibokoa alde batetik, erlazio interpertsonal eta jokabideetakoa beste batetik, eta lanbideratzekoa azkenik (Monjas eta De la Paz, 2000).

Irailaren 6ko 1333 eta 1334/1991 Errege Dekretuen arabera, zeharkako gaien garrantzia azpimarratzen da, hezkuntza integral baten lorpenerako. Hala nola, moral, hiritar, bake, berdintasun, ingurumen, sexu, osasun edo kontsumorako hezkuntza.

Bestalde, 819/1993 Errege Dekretuak dioenez, zeharkako gai hauek curriculo-aren barne hartu behar direla adierazten du, hauei buruzko orientazioak proiektu kurrikularretan sartu behar direla esanez.

1994ko irailak 7ko Hezkuntzako Estatu Idazkaritzako erresoluzioak gai hauek curriculo-an sartzeari buruzko zehaztapenak ematen dira, baloreetan oinarritutako hezkuntza garatu ahal izateko.

Abenduaren 23ko LOE 10/2002 legediaren arabera, haur hezkuntzan, neska-mutilen garapen sozial eta pertsonalaren oinarriak finkatzen dira. Halaber, kompetentzien lorpenen oinarria diren ikasketak integratzen dira, ikaslegoarentzat funtsezkoak direnak.

Kompetentzia zera da: neska-mutilen ezagupen eta trebetasun teoriko bai praktikoak, hala nola eskuratutako jarrera pertsonalak, era integratu batean eta testuinguru ezberdinetan praktikan jartzeko kapazitatea da. Kompetentzia kontzeptua, “egiten” edo “aplikatzen” jakitetik haratago doa, barne hartzen baitu “izaten” edo “egoten” jakitea (*Hezkuntza oinarrizko gaitasunak* [Eskura (2013/05/29): [www2.fe.ccoo.es/andalucia/docu/p5sd6689.pdf](http://www2.fe.ccoo.es/andalucia/docu/p5sd6689.pdf)]).

#### *1.4.2.. Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculum-a:*

Gizarte trebetasunak gehienbat Lehen Hezkuntzako curriculumeko 5. oinarrizko gaitasun sozialean lantzen dira, hots, 'Gaitasun soziala eta herritartasuna' delakoan. Hala ere, ikastetxeko eguneroko praktikan, beste oinarrizko gaitasunek ere ematen dute gizarte trebetasunak lantzeko aukera, askotan posibilitate hau irakaslearen esku dagoelarik.

Irakasgaiei dagokionez, arlo bakoitzak laguntza ematen du gaitasun batzuk garatzeko, eta oinarrizko gaitasun bakoitza arlo edo irakasgai batzuk lantzearen ondorioz lortzen da. Tutorearen jarduna etengabea eta funtsezkoa da beraz, gaitasun sozialaren barne dauden gizarte trebetasunei dagozkien gaitasunak lantzeko eta garatzeko.

- Gizarte trebetasunak oinarrizko gaitasunetan (O.G.):

Esan bezala, gizarte trebetasunak 5. O.G.-ean lantzen dira gehienbat beraz, beste O.G.en analisia ekidingo da bakar honetan zentratuz. Gaitasun hau, “Gaitasun soziala eta herritartasuna” arlo bakoitzaren lanketan zentratuko da, Nafarroako curriculum-ean trebetasun sozialak lantzeko azaltzen denaz hitz egiteko.

## 5. O.G. Gaitasun soziala eta herritartasuna:

Gaitasun honekin gizartearen errealitatea ulertzen da, lankidetzan aritu eta elkar-bizitzeko. Erabakiak hartu, egoera ezberdinen aurrean jokaerak hautatu eta hartutako aukeren eta erabakien erantzukizuna hartzea ahalbidetzen duten ezagutzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu.

Nafarroako curruculum-ean jartzen dunaren arabera, barne hartzen du gizartearen bilakaera eta antolaketari eta sistema demokratikoaren ezaugarri eta balioei buruzko ezagutzen erabilera, gizartean ongi moldatzeko. Hala nola, hautapen eta erabakiak hartzeko, zentzu morala erabiltzea eta herritarren eskubideak eta betebeharrak modu aktiboan eta arduratsuan betetzea (*Nafarroako Hezkuntza curriculum-a (1)* [Eskura (2013/05/29): [http%3A%2F%2Fdpto.educacion.na.varra.es%2Fpublicaciones%2Fpdf](http://3A%2F%2Fdpto.educacion.na.varra.es%2Fpublicaciones%2Fpdf)]).

Transmititu nahi diren baloreak, elkarbizitzarako balio demokratikoei loturiko arauak ezarri, onartu eta erabiltzea, herritarren eskubideak, askatasunak, erantzukizunak eta betebeharrak betetzea eta besteen eskubideak defendatzea dira.

- Gizarte trebetasunak irakasgaietan:

- *Natura, Gizarte eta Kultur ingurunearen ezagutza*

Arlo hauetan zenbait jarrera lantzen dira: elkarriketaren aldeko jarrera, gatazkak konpontzekoa, asertibitatea, eta horri lotuta, komunikazio egokia eta taldean ongi egotea errazteko abileziak eta moduak erabiltzea eta gizarteko arauak ezagutu eta erabiltzea. Gatazken gaietan gogoeta egin eta taldeari buruz ardurak hartzeko beharrezkoa da, bizikidetzako arauak eman eta onartzeko, bai egunero konponbidea behar duten egoeretan, bai bakoitza bizi den gizarte esparrukoetan. Horretaz gain, gizartearen antolamendua eta herritarrek parte hartzeko moduak eta halakoak ezagutu behar dira, bakoitzaren inguruko gizartea ulertzen laguntzen baitu.

- *Hezkuntza artistikoa*

Interpretazioa eta sormena talde lanari lotuta daude askotan. Lankidetzak eta ardurak hartzea eskatzen du, arau eta jarraibideak betetzea. Besteekiko

konpromisoan hezten dira ikasleak, talde lanak duen beharkizunean eta taldearen ahaleaginean lan egiten da. Azken batean, akordioa bilatzearen alde adierazteak errespetu, onarpen eta adostasunezko jarrerak abian jartzen ditu.

#### *- Herritartasunerako eta giza Eskubideetarako hezkuntza*

Gizartearen bizitzeko eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko trebetasunak eskuratzen laguntzen du. Lagungarria da harreman pertsonalen gaitasuna landu eta hobetzeko, bakoitzaren nahiak eta guztientzako eskubideak orokortzen laguntzen duen neurrian. Gainera, sentimenduetan oinarritutako lotura pertsonalak bultzatzen ditu eta gatazka egoerei aurre egiten laguntzen du. Parte hartzeari eta aniztasunaz eta bereizkeria eta bidegabekeria egoerez ohartzeari ematen dio garrantzia. Honekin batera, lagungarria da gizarte demokratikoen oinarriak eta antolaketa moduak ezagutzeko, giza eskubideen lorpena baloratzeko eta gatazka eta bidegabekeria egoerak baztertzeko.

#### *- Matematika*

Talde lanak garrantzi handia du matematikan, besteen ikuspuntuak onartzen ikasten delarik, batez ere problemak ebazteko estrategia pertsonalak erabili behar direnean.

#### *- Gaztelania/Euskara literatura*

Errespeturako eta pertsonen arteko elkar ulermenerako gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko hizkuntza beharrezkoa da, komunikazioaren oinarri gisa. Hizkuntza bat ikastea besteekin komunikatzen ikastea da, hauek transmititzen dutena ulertzen jakitea, errealitate ezberdinekin harremana izaten jakitea eta norberaren adierazpena onartzen jakitea (*Nafarroako Hezkuntza curriculum-a* (2), [Eskura (2013/05/29): <http://3A%2F%2Fdpto.educacion.navarra.es>]).

### **1.5. Irakasteko beharra eta metodoak:**

#### *1.5.1. Gizarteratze Trebetasunak irakasteko beharra:*

Ikusitakoaren arabera, eskola eremuan gizarte trebetasunak irakastea

beharrezkoa dela ondoriozta daiteke. Irakaskuntza hau, beste alderdi batzuk aurrera eramaten diren era berean egin beharrezkoa izan beharko litzateke, hau da, sistematikoki eta era zuzenean. Trebetasun sozialak ez dira hobetzen behaketa sinple baten edota argibide informal baten bidez; irizpide zuzenak beharrezkoak dira. Gizarte trebetasunetan defizitak edo arazoak dituzten haurrek, ez dituzte gaitasun sozialak eskuratzen trebeak direnen jarreraren behaketarekin soilik. “Esku-hartze zuzena, helburu zehatzekin egindakoa eta sistematikoa beharrezkoa da beraz ohiko curriculumean. Honek hurrengoa inplikatzeko du: arloarentzat ordutegi finkoaren beharra eta beste alor kurrikularrek bezalako planifikazio eta ebaluazio estrategiak. Ondorioz, komenigarria da egunean edo astean zehar tarte bat gordetzea gai hau jorratzeko” (Monjas, 1996, 40).

Ikastetxean, alderdi interpersonalen irakaskuntza beharrezkoa da, eta ikasle zehatz batzuentzat premiazkoa eta ezinbestekoa litzateke, besteekiko erlazioetan zailtasun larriak edo arrisku potentziala baitute. Ikasle talde honen barnean, hurrengo sailkapena egin daiteke: heziketa bereziaren beharra dutenak (Monjas, 1996), jokamoldean alterazioak dituztenak (Monjas eta Arias, 1990), edota errefusa edo gizarte isolamendua jasaten dutenak. Haur hauentzat, pareekiko erlazio egokien lorpena lehentasunezko helburu bilakatzen da, ezinbestekoa izanik alderdi interpersonalen ikaskuntza-irakaskuntza jarduerak apropos antolatzea.

Orokorrean, jarrera arazo larrienak, ikasgelako bizikidetzak hausten dutenak dira eta jarrera gatazkatsuak era askotakoak izan ohi dira. Adibide batzuk jartzearren: aulkitik altxatu, irakaslearen azalpen erdian hitz egitea, hitzezko agresioak edo agresio fisikoak egitea (Calatayud, *Tutoretza jardunaren egitasmoa (1)*, [Eskura (2013/05/11): [www.lavirtu.com](http://www.lavirtu.com)]).

Interakzio trebetasunen irakaskuntza eta aldaketa giro naturaletan egin beharra dagoela argi geratzen da, “haurrentzako garrantzizkoak eta adierazgarriak diren gizarte eragileekin batera. Bai eskolan eta bai etxean egin behar da irakaskuntza hau, profesionalen, gurasoen eta pareen bitartez” (Monjas, 1996, 48).

Laburbilduz, Trebetasun sozialak irakasteko programak, hezkuntzako ohizko curriculumetan sartzea beharrezkoa da, helburu bikoitzarekin: alde batetik, ikasle guztiengan gaitasun sozial egokien sustapena eta desdoikuntza prebentzioa lantzea, eta bestetik, gizarte gaitasun falta duten ikasleetan zentratutako esku-hartzea lantzea.

Pérez-ek adibidez azpimarratzen du orientazio Psikopedagogikoan garrantzi handia duela tutoretza indibidualak eta taldekoak. Laguntza prozesu jarrai eta sistematiko bezala kontsideraturik, prebentzioan eta norbanakoaren garapenean enfasia jarri behar da. Erabili ohi diren gizarte trebetasunak ez dira ekintza kontzienteak ezta etengabe hartzen diren erabakiak (Pérez, 1998). Beraz, ikaslea trebetasun hauetara ohitzea lortu behar da, naturaltasunez ikus ditzan. Jokaera bat ohitura bihurtzeko, aldi askotan errepikatu beharra dago, errutina moduan. Ohitura bat ez da gaiaren aho-azalpen sinplearekin lortzen, ikasleek behin eta berriz praktikan jarri beharra dute, egoera artifizialetan bai eta naturaletan, beraien jarrera errepertoria gehitu arte. Behin helburu hau lortuta, honen iraunkortasunaren jarraipen bat egiten da (Sanchiz eta Traver, 2006 ; Calatayud, *Tutoretza jardunaren egitasmoa (3)* [Eskura (2013/05/11): [www.lavirtu.com](http://www.lavirtu.com)]).

### *1.5.2. Irakaskuntza Programak:*

Jarrera interpertsonalak ikasi egiten direnez gero, hauek moldatzeko aukera ere badago. Hau, interbentzio estrategia ugariaren bitartez egin daiteke, “Gizarte trebetasunen entrenamendua” deiturikoak.

Ikusi den moduan, haur populazioari dagokionez, gizarteratze trebetasunen entrenamenduak ez du behar bezalako arreta bereganatu. Hala ere, azken urteotan, entrenamendu hauen aplikazio eremua nabarmen areagotu dela bistakoa da: iraganean, arazo larriak zituen ikasleengan egiten ziren interbentzioak. Gaur egun, prebentzio-interbentzioetara pasa da, “arazorik gabeko” ikasleengan ere aplikaturikoak.

Erlazio interpertsonalak hobetu eta taldearen bizikidetzaren indartu nahi bada, talde osora zuzendu beharra dago, eta ez bakarrik arazoak dituzten ikasleengana (Fernández eta Ramírez, [Eskura (2013/05/19): [www.aufop.com](http://www.aufop.com)]). Era honetan, laguntzeko prest dauden ikasleek, gatazkatsuenekin kide ahalko

dira, eta jarrerak modelatu era natural, konstruktibista eta humanitarioan. Honela, beraiekiko jarrera balioztagarri negatiboa duten ikasleen autoestimua hobetu ahalko da. Horrenbestez, edozein programa praktikan jarri aurretik, ikasleekin negoziatu behar da.

Egungo gizarte trebetasunen entrenamendua, beste teknika terapeutiko batzuekin batera aplikatu ohi da, haurtzaroko jarrera arazo ugaritan. Aplikazio nagusiak hurrengoak dira:

- Berdinkideengandik baztertutako umeak.
- "Gehiegizko" jarrerak dituzten umeak (jokabide agresiboak, hiperaktiboak).
- Lotsatiak, uzkurak, sozialki isolatuak.
- Hezkuntza behar bereziak.
- Haurtzaroko arazo psikiatrikoak.
- Moldatu gabeko nerabeak.
- Tratu txarrak jasandako haurrak.

Hona hemen autore ezberdinen irakaskuntza programa batzuk:

1. "Gizarteratze trebetasunen haurrentzako irakaskuntza" (Michelson, Sugai, Wood eta Kazdin, 1987).

Programa hau Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan praktikan jartzeko proposatzen da. Honetan landutako trebetasunak, alor hauetan sailkaturik agertzen dira: Konplimenduak egitea, kexak adieraztea, faboreak eskatzea, galderak egitea, jarrera aldaketak eskatzea eta kontrako sexuko pertsonekin interakzioak egitea.

2. "Elkarbizitza hobetzeko gizarteratze trebetasunen programa" (Fernández eta Ramírez, 2002 [Eskura (2013/05/19): [www.aufop.com](http://www.aufop.com)]).

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzara bideraturiko programa da, non klasean erlazio gatazkatsuak eta agresiboak sahiestearen, edo bizikidetzaren hobetzearen helburuarekin, hiru alorretan sailkatzen dituen landu beharreko trebetasunak: norberaren burua ezagutzea eta komunikazioa, bigarrenik,



egoera sozialei aurre egiten ikastea eta azkenik gatazkei irtenbidea aurkitu eta erabakiak hartzea.

3. "Identitate pertsonalaren paradigma. Pentazitate programa" (Pentazitate taldea [Eskura (2013/05/19): <http://www.pentacidad.com>]).

Haur eta Lehen Hezkuntzarako planteaturiko programa honen metodoa auto-erregulazioan oinarritzen da, sexualitate, afektibitate, autoestimu eta emozioetan oinarritzen delarik.

Honako alorrak aurkezten dira beraz, giza-trebetasunak lantzerako orduan: norbanakoaren identitate pertsonala eta autonomia; elkar bizitzea; komunikazioa; sentimendu eta emozioen kontrola.

4. "Gizarteratze trebetasunen entrenamendua" (Kelly, 1987).

Programa hau, Haur eta Lehen Hezkuntzan gauzatzeko planteaturik dago. Bertan lantzen diren trebetasunak alor hauetan sakabanatzen dira: (a) agurrak era egokian egitea, erlazio interpersonalen inimizazio edo hastapena, (b) galderak egin eta erantzutea, gorespak egitea, (c) ariketetan parte-hartzea eta erresponzabilitate afektiboa.

5. "Munstroa, arratoia eta ni programa" (Palmer, 1991).

Programa hau Lehen hezkuntzan praktikan jartzeko prestatua dago soilik. Honetan, jarrerazko eta kogniziozkoak diren gizarteratze trebetasunetan oinarritzen da. Alor hauetan sailkatzen ditu landu beharreko gizarteratze trebetasunak: oinarrizko trebetasun sozialak; asertibitatea; autoestimua; arazo interpersonalen soluzioa.

6. "Erlazionatzen ikasten dut" programa (Moyano, 1992).

Honakoa, Haur eta Lehen Hezkuntzan lantzekoa da, eta norbanakoaren eskubide pertsonalen eta sozialen inguruko trebetasunak lantzen ditu batik bat.

7. "Trebetasun errefortzurako programa" (Vallés eta Vallés, 1996).

Lehen Hezkuntzan lantzeko proposaturikoa dugu hau eta batik bat trebetasun psikosozialak aurkezten dira, hala nola; norbanakoaren identitatea, autokontzeptua, autoezagutza, e.a.

8. "Autokontzeptuaren eta Autoestimua garapenerako programa" (Marchago, 1996).

Lehen Hezkuntzara bideraturikoa dugu hau ere eta honako alorretan sailkatzen dira landu beharreko trebetasunak: autokontzeptu akademikoa, gizarte autokontzeptua, norbanakoaren autokontzeptu emozionala eta autokontzeptu fisikoa.

9. "Gizarteratze trebetasunen oinarrizko programa" (Calatayud, *Tutoretza jardunaren egitasmoa* (3) [Eskura (2013/05/11): [www.lavirtu.com](http://www.lavirtu.com)]).

Lehen hezkuntzarako planteatutako programa honetan, trebetasunak alor hauetan sailkatu agertzen dira: gizarteratze arauen barneraketa; arazo interpersonalak konpontzea; eskaerei erantzutea; elkarrizketa; sentimenduen eta enpatiaren adierazpena.

10. "Lagunekin Baratzean prebentzio programa" (AGIPAD taldea, *Prebentzio programa* [Eskura (2013/05/19): <http://www.agipad.org>])

Programa hau Haur eta Lehen Hezkuntzan lantzeko bideratua dago. Ipuin-liburuak dira 18 istorio desberdinekin, AGIPADeko Prebentzio taldeak egokitutakoak. Haurrei heldutasun psikoafektiboa lortzen laguntzea; oinarrizko osasun ohiturak berenganatzen laguntzea eta droga-gehiegikeriari aurre hartzeko lehen urratsak ematen laguntzea du helburu. Honela bada, norbanakoen eta besteen sentipenetan eta arazo interpersonaletan oinarritutako trebetasunak lantzen dira.

11. "Gizarteratze Trebetasunen errefortzua" (Vallés, 1994).

Lehen Hezkuntzarako prestatutako programa honetan, autoestimua eta arazoen soluzioan oinarritzen bada ere, hauek dira trebetasunak lantzeko proposatzen diren azpi-alderdiak: autokontzeptua; autoestimua; sentipen eta emozioen espresioa; elkarrizketetarako trebetasunak; konplimenduak jaso eta adieraztea; faboreak eskatzea eta egitea; taldeko erlazioak; pentsamenduen kontrola; kontrako sexuarekiko erlazioak; erlaxazioa.

12. "PHEIS: Gizarte interakzioetarako trebetasunen programa" (Monjas, 1996).

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan aplikatzeko programa honetan, landu beharreko trebetasunak talde hauetan sailkatzen dira: gizarte interakziorako oinarrizko trebetasunak; lagunak egiteko trebetasunak; elkarrizketarakoak; sentipenak, emozioak eta iritziak adieraztekoak; arazo interperersonalen soluziorakoak; helduekin erlazionatzekoak.

Azken autore honen programa hautatu izan da ikerketa gauzatzeko. Honen arrazoiak anitzak dira. Alde batetik, trebetasunak sailkatzeko eta lantzeko modua ikerketa honen helburuak asetzen dituelako. Gainontzeko proposamenetan oinarrizko trebetasunak, arazoen soluziorakoak, autoestimua, komunikazioa eta asertibitatea lantzen dira norabide batean zentratuak gehiengo, hots, norbanakoaren ekintzetan (besteen ekintzek norbanakoan duten eragina). Programa honek ordea, norabide hori ez ezik, norbanakoak besteengan duen eraginaren inguruan ere aritzen da.

Beste arrazoi bat izango litzateke, programa honek trebetasunak lantzeko, hau da, irakasteko edota ikasitakoak moldatzeko aukera ematen duten tutorearentzako materiala eskaintzen dutela. Eta azkenik, gizarteratze trebetasunak landu ahal izateko, oinarri-oinarrizkoa da lehenengo ikasleen ebaluazioa egitea. Honetarako, PEHIS programak ere, galdetegi batzuk aurkezten ditu ikasle eta tutoreak bete beharrekoak, honela jakin ahal izateko ze alor eta azpi-alorrean gabezi gehien dagoen.

Beste autore batzuek ere hasierako ebaluaziorako materiala eskaintzen dute adibidez Calatayud-ek, baina tutoreak egin beharrekoan zentratzen da, eta ez ikerketa baterako analisisian. Azken honek, test bat aurkezten du gizarte interakzioko egoera ezberdinetan, asertziozko erantzun edo erantzun egokiaren detekzioa edo antzematean oinarritzen dena. Honek egoera ugari eskaintzen ditu, zeinetan 5 erantzun posible dauden (Calatayud, *Tutoretza jardunaren egitasmoa* (2) [Eskura (2013/05/11): [www.lavirtu.com](http://www.lavirtu.com)]). Hauetatik, bakarra da baliozkoa, gizarte trebetasunen arloan. Analisi jarduera bikaina da tutorearentzat. Hala ere, proiektuak beste norabide bat duela eta, PEHIS programan zentratuko da lana.

- PHIS programaren ezaugarri orokorrak:

Gizarte trebetasunak lantzeko edo entrenatzeko metodoak, ikasleek ez dituzten trebetasunak ikasteko edo jada badituzten erlazio interpertsonalak moldatzeko bideratuak dauden teknika kognitibo-kontzeptualen multzoak dira. Honela bada, teknika hauek entrenamendu sesioetan txertatzen dira egoera naturaletan ematen diren bizipenetatik habiatuz (Gil, 1993).

Zehaztasun metodologiko honen tratamenduan, honetarako teknikak enpirikoki ebaluatzeko konpromezuarekin erlazionatuta dago (Pérez, 1998); tratamendua modu operatiboetan zehaztu behar da, eta honen efektua ebaluatu beharra dago, erantzun anitzen modalitatearen bidez.

Egungo teknikak ikuspuntu kognitibo-konduktuala azpimarratzen dute eta 3 sistemen (erantzun motor, kognitibo eta afektiboa) ebaluazio prozedura erabiltzen dute, era zehatz batean egin, ebaluatu eta entrenatu ahal izateko (prozedura egituratua dago eta eskurapen prozesuak, pauso erabat programatuak jarraitzen ditu) (Fernández-Ballesteros eta Carrobles, J.A., 1991).

Irakasleek Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan erabiltzeko diseinaturik dago alde batetik, eta familiek etxean erabil dezaten bestetik. Beraz, teknika eta prozedura errazak erabiltzen dira, hauek menperatu eta aplikatzeko denbora eta esfortzu gehiegi behar ez dutenak.

Gaur egun dauden ebidentzia zientifikoek aholkatzen dute interbentzio estrategia multi-modalak erabiltzea (Caballo, 1993). Hots, teknika multzo bat sortzea, bakoitza aparte erabiltzeak suposatzen duen ahultasuna ekidin nahian, hauen eragina eta iraunkortasuna hobetu dadin.

Honela bada, irakaskuntza prozeduran orokorrean, hurrengo puntuak landu beharrekoak dira:

- 1) Aurretiko gertaerak (adib, Modelatze irizpideen bitartez)
- 2) Jokamoldea (Praktika, gauzatzera gidatuko duten auto-instrukzioak)
- 3) Ondorioak (Feedback-a, Errefortzua, Auto-errefortzua)

Entrenamendu eta hezkuntza metodo hauek irizpide sekuentzia batean antolatzen dira, irakaskuntza prozedura deritzona, eta hurrengo elementuek

osatzen dute : Hitzeko instrukzioa, Elkarrizketa eta Eztabaidatzea, Moldeatzea, Praktika: Saiakerak, *Role-Playing* edo Dramatizazioa, Ebaluazioa. Feedback-a eta Errefortzua eta Zereginak eta etxerako lanak (Monjas eta De la Paz, 2000); Pérez, 1998; Calatayud, *Tutoretza jardunaren egitasmoa (1)* [Eskura (2013/05/11): [www.lavirtu.com](http://www.lavirtu.com)] eta (3) [Eskura : 2013/05/11: [www.lavirtu.com](http://www.lavirtu.com)]).



## 2. METODOA:

### 2.1. Parte hartzaileak:

Galdetegiak ahalik eta eskola eta ikastetxe gehienetan entregatu izan dira, Lehen Hezkuntza etapako tutore guzti-guztiek betetzeko beharra zegoelako, eta irakasleen aldetik kooperazioan arazoak egongo zirela aurreikusi zelako.

Galdetegiak Lehen Hezkuntzako 3 zikloetako tutoreek betetzeko prestatu dira eta Nafarroako zonalde ezberdinetan sailkaturik dauden 10 ikastetxe publiko, zein kontzertatuetan banatuak izan dira: Sakanako bailaran, Iruñean eta Zangozako Merindadean hain zuzen ere. Hauetatik, datuak kopuru ezberdinean, 8 ikastetxeetatik jasoak izan dira, 69 tutoreen datuak lortuz.

1go taulan laginaren datu zehatzak agertzen dira; galdetegiak bete dituzten tutoreen kopurua eta hauek ze ziklotakoak izan diren.

**1go taula.** Ikastetxeetatik jasotako galdetegien lagina

Ikastetxeak	1.ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA	TOTALA
A	5	5	2	12
B	2	2	2	6
C	4	4	4	12
D	2	2	2	6
E	4	2	3	9
F	3	2	5	10
G	3	1	3	7
H	2	2	3	7
	25	20	24	69

### 2.2. Materiala:

PEHIS programak, Gizarteratze Trebetasunak sei alorretan sailkatzen ditu. Alor hauek, gizarteratze trebetasunen kategoria orokorrak dira eta hauen barne egongo dira trebetasun eta azpi trebetasunak. Azpi trebetasunekin esan

nahi dena da, era orokorrean planteaturiko trebetasunen barne trebetasun zehatzagoak aurkezten direla, eta azken hauen barnean oraindik zehatzagoak direnak.

Gizarte trebetasun hauen artean konplexutasun graduala aurkezten da, lehenengo eta bostgarren alorrak konparatzen badira adibidez. Ikusi 2. taula

**2. taula.** PEHIS. Gizarte-trebetasunen alor orokorrak.

1. Alorra	Oinarrizko trebetasunak
2. Alorra	Lagunak egiteko trebetasunak
3. Alorra	Elkarrizketarako trebetasunak
4. Alorra	Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak
5. Alorra	Norberaren arazo pertsonalak konpontzeko trebetasunak
6. Alorra	Helduekin erlazionatzeko trebetasunak

Ikerketa honetan lehenengoa eta seigarrena alde batera utzi dira, gainontzekoak besterik kontuan hartuz. Hau egitearen arrazoia, ikerketa, tutorearen gela barneko jardunean oinarriztearen helburua izan da. Gurasoen inplikazioa eta koordinazioa ezinbestekoa den arren, hauek ez dira kontuan hartu. Bestetik, lehenengo alorreko gizarte trebetasunak norbanakoan zentratzen dira batik bat eta aurrekoaz aparte, ikasleek haien artean dituzten elkarrekiko jarrera zein portaerei egin nahi zaie erreferentzia. Amaitzeko, azkeneko alorraren inguruan, hots seigarrena, ez da ikerketarako hautatua izan. Garrantzitsua den arren, aurretik esan den moduan, ikasleen arteko elkarrekintzetan zentratu izan da ikerketa helduenganako portaerak eta elkarrekintzak alde batean utziz.

Beraz, hautatutako lau alor horiek baloratzeko, PEHISEK proposatzen dituen bi galdetegi kontuan izan dira. Bertan, bi galdetegi aurkezten dira:

- Tutore-irakasleak bete beharrekoa: ikasle bakoitzean zentratuak. Tutore bakoitzak bere gelako ikasle haina galdetegi bete behar ditu, hau da, ikasle bakoitzeko galdetegi bat.
- Ikasleak berak bete beharrekoa, ikasleei zuzenduriko itemekin.

Hau honela planteaturik dagoen arren, tutoreei zuzenduriko galdetegia prestatzeko helburuarekin, galdetegi hauek moldatu egin izan dira, tutoreak



bere gelan trebetasun sozialak ze maiztasunarekin lantzen dituen orokorrean erantzun zezan.

Honela egitearen arrazoia, ikerketa orokor bat egitearen nahia izan da. Tutorearen jarduna gizarteratze trebetasunak gela osoarekin lantzerakoan, ze maiztasunarekin egiten duten ikusi ahal izateko.

Aurretik aipatutakoa kontuan izanda beraz, galdetegia prestatu izan zen tutoreek *Lickert* eskala batean oinarrituriko graduazioan, haiek trebetasunak lantzeko maiztasunaren arabera, batetik bosterako zenbaki bat borobiltzeko. Hau bukatu eta gero, metodo zehatzik erabiltzen zuten ala ez jarri behar zuten eta baiezko erantzunetan, laburki zein zen esan.

Trebetasun sozialen inguruko itemak ulerkorragoak izan zitezten, hauek labur idatzirik baitaude, ondoan ze alorrari eta ze azpi-alorrari dagokien zehaztuak izan ziren.

Guztira 40 item daude galdetegian, aurretik aipatu den moduan, 4 alor hartu izan direlako kontuan. Alor bakoitzak bost azpi-alor ditu eta azpi alor bakoitza, bi itemetan banaturik dago (Ikus eranskina I.)

Galdetegiaren goi aldean, tutoreek hauek burutzeko beharrezko informazioa jarri izan zen hainbat aspektu zehaztuz. Alde batetik, tutoreek bete beharrekoa zela eta ez beste inork (irakasle espezializatuek, e.a.). Bigarrenik, taulan agertzen zenari buruz, hau da, zer egin behar zuten eta nola (haien alor bakoitzarekiko lanketaren inguruan hausnartu eta *Lickert eskalaren* bidez adierazi erabilitako metodologia aipatzearekin batera, kasua ematen bazen). *Lickert* motako eskalaren zenbaki bakoitzak trebetasunak lantzearen graduazioa erakusten du:

- 1- Ez dut inoiz lantzen
- 2- Ez dut ia inoiz lantzen
- 3- Askotan lantzen dut
- 4- Ia beti lantzen dut
- 5- Beti lantzen dut

### **2.3. Prozedura:**

Galdetegiak egin eta gero, ikastetxeekin kontaktuan jarri izan da era ezberdinetan, hauen kokapenaren arabera: posta elektronikoz, telefonoz edota ikastetxeetara bertara zuzenean joanez. Honela beraz, ikastetxeetako zuzendariekin edota irakasleekin elkartu eta galdetegiak pasa zaizkie, gainerako azalpen txiki batekin. Tutoreek itaun-sorta burutzeko, lau eguneko epealdia izan da.

Tutoreei adierazi izan zaie galdetegia erabat anonimoa dela eta ez direla ikastetxeen arteko inolako alderaketarik egingo. Honela, irakasleen aldetik emaitzetan zintzotasuna lortu nahi izan da. (Ikerketan datu errealekin ibiltzeak ikastetxeei onura ekar diezaielako, proposamenak errealagoak izango baitira.)

Honela bada, ikastetxeetara pasatako galdetegietan jarritako item batzuen adibideak honelakoak izan dira:

- *Beste ikaskide batek beste ariketa edo jolas bat egitera gonbidatzean egoki erantzuten lantzen dut.* (Alorra: Lagunak egiteko trebetasuna. Azpi-alorra: Gizarteratze hastapenak).

-*Egoera ezberdinetan ikaskideak laguntzen lantzen dut.* (Alorra: Lagunak egiteko trebetasuna. Azpi-alorra: Laguntza).

-*Beste ikaskideekin joko edo ariketetan parte hartzen eta kooperatzen (animatu, proposamenak egin, e.a.) lantzen dut.* (Alorra: Lagunak egiteko trebetasuna. Azpi-alorra: Kooperazio eta elkarbanatzea).

### *2.3.1. Proposamenak egiteko kontuan hartutako irizpideak:*

Proposamenak egiteko bi irizpide nagusi hartu dira kontuan. *Lickert* motako eskala 5 zenbakiz osaturik dagoela eta, lehenengo eta bigarren zenbakiek, hau da, giza-trebetasunak “inoiz” eta “ia inoiz” hautatu izanak lanketa eskasa bistaratzen du. Bestetik, lau eta bost hautatzeak, hau da, “ia beti” eta “beti” trebetasunen lanketa sakona ziurtatzen du. Tartean dagoen hirugarrena zenbakiarekin ordea, “askotan” lantzen dela adierazten duen arren, ez da lehenengo taldean (eskas edo gutxi lantzen den taldean) ezta bigarrenean (asko lantzen den taldean) sartzen. Tartean dagoen zenbakia den

aldetik, eremu “segurua” izan daiteke zenbaki bat edo beste hautatzeko unean. Tutoreak kontziente dira gaia jorratzearen garrantziaz eta gaia gutxitan lantzen badute ere, baliteke zenbaki honen bidez haien lanketa definitzea. Honi soluzio bat bilatzeko, zera kontuan hartu izan da: Zenbaki baloratzailerik hauen bitan zatitzea, honela 3'5 baino batz-beste baxuagoa ateratakoak, bigarren taldean egongo balira bezala kontsideratuz (eskas landutakoak) eta bestetik, batz-beste horretatik gorakoak, lehenengo taldearen barne kontsideratuz (asko landutakoak).

Honela bada proposamenak egiterako orduan, batz-besteetan datu esanguratsuak ateratako azpi-alorretan ez ezik, 3'5 batz-bestetik behera ateratako azpi-alderdietatik ere abiatuko da.

### *2.3.2. Datuen trataera estatistikoa:*

Galdetegiak jasotakoan, *SPSS pakete estatistikoa* erabili izan da datuen bilketa eta trataerako.

Galdetegietatik lortutako datuak sartu eta gero, hauen arteko batz-besteak atera dira (totalak, alor orokorrenak, azpi-alorrenak eta galderenak) zikloen arteko konparaketak eginez; non lantzen den gehiago, gutxiago, gabeziak non ikusten diren, e.a.

Kalkuluak egiterakoan, hainbat prozedura estatistiko burutu izan dira; *Mann-Whitney*-ren “*U*”, *Cohen*-en “*d*” eta erregresio logistikoko analisia ere erabili izan da (*Wald*-en  $\chi^2$  estadigrafoa).



## 4. DATUEN EMAITZAK

### 3.1. Gizarte trebetasunak:

Aurretik azaldu den moduan, bi irizpide kontuan hartu izan dira datuen analisisian geroko proposamenak egiteko. Bata, *Lickert* motako eskalan oinarrituz, “gutxi edo eskas” landutako trebetasunak kontuan hartuko direla (1 “inoiz” edo 2 “ia inoiz”) eta bestea, “gutxi” lantzen diren trebetasunak 3'5-etik beherako batz-beste guztiak kontsideratuko direla.

Hartutako laginak independienteak eta txikiak zirela eta, *Mann-Withney*-ren “*U*” test ez-parametrikoa eta *Cohen*-en “*d*” erabili izan dira zikloen arteko ezberdintasunak kalkulatzeko eta aztertzeko.

#### 3.1.1. Analisi orokorra:

Datuen analisi orokorra egiterakoan, batz-beste totala 3'77 ateratzen den aldetik, orokorrean esan daiteke “askotan” lantzen direla gizarteratze trebetasunak, gaiaren irakaskuntzaren inguruan ikertutako ikastetxeetan.

Ziklo bakoitzeko batz-beste orokorren analisia eginez bestetik, lehenengo zikloaren batz-bestekoa 3'85-ekoa da; bigarren ziklokoa 3'79-koa eta amaitzeko hirugarren ziklokoa 3'66-koa. Hortaz, hirurak ezarri den mugatik gora daude (3'5-etik gora). (Ikusi 3. taula)

**3. taula.** Batz-beste totala eta zikloa

	TOTALA	1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
$\bar{x}$	3'77	3'85	3'79	3'66

#### 3.1.2. Alor orokorrak:

Analisi orokorra egin eta gero, alor orokor bakoitzeko batz-beste totala izan da. Lehenengo alor orokorrean, “Lagunak egiteko trebetasunak”, 3'75-eko batz-bestearekin; bigarren alor-orokorra, “Elkarrizketarako trebetasunak”, 3'73-koarekin; hirugarrena, “Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak”, 3'78-koarekin eta amaitzeko laugarrena, “Norberaren

arazo interpertsonalak konpontzeko trebetasunak”, 3'89-ko batz-batzekoarekin. Honela bada, 4. taulan ere ikusi daiteke nola alor guztietan 3'5 mugatik gorako batz-batzekoa ematen den.

**4. taula.** Batz-batzeko totala eta zikloen artekoa.

ALDERDI OROKORRAK		TOTALA	1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
$\bar{x}$	Lagunekin	3,75	3,85	3,79	3,61
	Elkarrizketa	3,73	3,88	3,68	3,61
	Sentipenak	3,78	3,92	3,77	3,63
	Arazoak	3,89	3,74	3,93	3,81

Bestetik, zikloen arteko batz-batzekoen konparaketa egiterako unean, lehenengo eta bigarren zikloen, eta bestetik bigarren eta hirugarren zikloen artean ezberdintasun esanguratsurik ateratzen ez den bitartean, lehenengo eta hirugarren zikloen arteko konparaketan bai, bi alorretan gainera: “Lagunak egiteko trebetasunak” alorrean ( $U=192,500$  ;  $p=0,031$ ) diferentzia horrekin lotutako efektuaren tamaina ertaina ateratzen delarik (*Cohen*-en  $d= 0.43$ ), eta “Elkarrizketarako trebetasunak” alorrean, ( $U=187,000$  ;  $p= 0,023$ ), honetan ere efektuaren tamaina ertaina ateratzen delarik (*Cohen*-en  $d=0.45$ ).

### 3.1.3. Azpi-alorrek eta galderak:

Azpi-alorren inguruan azkenik, batz-batzeko totala kalkulatzekoan, 5. taulan ikusi daitekeen moduan, lehenengo zikloan bi azpi-alorretan gabeziak aurkeztu dira gaia jorratzean: “Elkarrizketarako trebetasunak” alor orokorraren barnean dauden “Elkarrizketak bukatu” azpi alorrean 3'48-ko batz-batzekoarekin, eta “Norberaren arazo pertsonalak konpontzeko trebetasunak” alor orokorraren barnean dagoen “Soluzioa praktikan jarri” azpi-alorrean, 3'26-ko batz-batzekoarekin.

Bestetik, bigarren zikloari begira, gabeziak lau azpi-alorretan antzeman dira: “Elkarrizketarako trebetasunak” alor orokorraren barne agertzen diren “Elkarrizketak hasi azpi-alorrean” 3'48-ekoarekin; “Elkarrizketak bukatu” azpi-alorrean 3'43-koarekin; “Beste batzuen elkarrizketetan sartu” azpi-alorrean 3'38-ko batz-batzekoarekin; eta amaitzeko “Sentimendu, emozio eta iritziekin lotutako trebetasunak” alor orokorraren barnean aurkezten den “Emozioak

azaleratu” azpi-alorrean, 3'48-koarekin.

Bataz-besteko orokorrak kalkulatzeko, hirugarren zikloa aztertu eta gero, zazpi azpi-alorretan aurkeztutako gabeziak honakoak izan dira: “Lagunak egiteko trebetasunak” alor orokorreko “Besteak indartu eta adoretu” azpi alorrean alde batetik (3'25); “Elkarrizketarako trebetasun” alor orokorreko hiru azpi alor: “Besteekin elkarrizketak hasi (3'23)”; “Elkarrizketak bukatu” (3'17); “Beste batzuen elkarrizketetan sartu” azpi-alorrekin (3'33). “Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak” alorreko “Norberaren baieztapen positiboa” (3'19) eta alor bereko “Emozioak azaleratu” (3'38) eta amaitzeko, “Norberaren arazo interpersonalak konpontzeko trebetasunak” alorreko “Soluzioa praktikan jarri” azpi-alorra (3'38).

**5. taula.** Azpi-alorren bataz-besteko totala eta ziklo bakoitzeko orokorra

ALORRAK	AZPI-ALORRAK	$\bar{x}$			
		TOTALA	1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
Lagunak egiteko trebetasunak	Besteak indartu eta adoretu (1-2 galderak)	3,46	-	-	3,25
Elkarrizketarako trebetasunak	Besteekin elkarrizketak hasi (11-12 galderak)	3,46	-	3,48	3,23
	Elkarrizketak bukatu (15-16 galderak)	3,36	3,48	3,43	3,17
	Beste batzuekin elkarrizketetan sartu (17-18 galderak)	3,44	-	3,38	3,33
Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak	Norberaren baieztapen positiboa (21-22 galderak)	(3,60)	-	-	3,19
	Emozioak azaleratu (23-24 galderak)	(3,57)	-	3,48	3,38
Norberaren arazo interpersonalak konpontzeko trebetasunak	Soluzioa praktikan jarri (39-40 galderak)	3,44	3,26	-	3,38

Azpi-alorrekin jarraituz, zikloen arteko bataz-bestekoen konparaketa gauzatu eta gero, lehenengo eta bigarren zikloen artean, azpi-alor bakarrean, hots, “Taldekako erlarrizketatan” (19-20 galderak) ikusi daiteke: ( $U= 175,500$ ;  $p=0,042$ ) diferentziaren efektuaren tamaina ertaina delarik (*Cohen*-en  $d= 0.29$ ). Bigarren eta hirugarren zikloen arteko konparazioan ere ezberdintasun esanguratsua azpi-alor bakarrean azaltzen da ere bai, “Besteekin batera jokoan

sartzea” horretan hain zuzen ere (5-6 galderak osatutakoa) (U=158,500; p=0,047 ) kasu honetan efektuaren tamaina handia delarik (Cohen-en d= 0.68). Azpi alorren datuen analisiarekin amaitzeko, lehenengo eta hirugarren zikloko alderaketan, sei azpi-alorretan ateratzen dira diferentzia esanguratsuak: “Kooperazio eta elkarbanatzea” azpi-alorrean (9-10 galderak), (U=181,000; p= 0,015), diferentziaren tamaina ertainarekin (Cohen-en d= 0.50) ; “Elkarrizketak mantendu” azpi-alorrean (13-14 galderak), (U= 197,500; p=0,036), diferentzia tamaina ertainarekin hau ere (Cohen-en d= 0.41). Gainontzekoak alde esanguratsuekin aurkezten dira: “Besteekin batera jokoetan sartu” (5-6 galderak), (U=190,000; p= 0,023), (Cohen-en d= 0.57) ; “Elkarrizketak hasi” (11-12 galderak), (U= 199,000; p=0,040), (Cohen-en d= 0.52) ; “Norberaren baieztapen positiboa” (21-22 galderak), (U=156,000 ; p=0,004), (Cohen-en d= 0.83); “Emozioak azaleratu” (23-24 galderak), (U=202,500 ; p= 0,043), (Cohen-en d= 0.51), guztietan efektuaren tamaina handiarekin. 6. taulan ikusi daiteke zikloen arteko konparaketan, datu esanguratsuak (gurutzeen bidez) ze azpi-alderditan atera diren.

**6.taula. Zikloen arteko konparaketa azpi-alorretan**

Alor orokorrak	Azpi-alorrak	1go ZIKLOA 3. ZIKLOA	1go ZIKLOA 2. ZIKLOA	ZIKLOA 3. ZIKLOA
Lagunak egiteko trebetasunak	Besteekin batera jokoan sartzea (5-6 galderak)	X	-	X
	Kooperazio eta elkarbanatze (9-10 galderak)	X	-	-
Elkarrizketarako trebetasunak	Elkarrizketak hasi (11-12 galderak)	X	-	-
	Elkarrizketak mantendu (13-14 galderak)	X	-	-
	Taldeko elkarrizketak (19-20galderak)	-	X	-
Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak	Norberaren baieztapen positiboa (21-22 galderak)	X	-	-
	Emozioak azaleratu (23-24 galderak)	X	-	-

Amaitzeko, azpi-alor bakoitza bi galderen bidez osaturik dagoela eta, hauek ere aztertu dira. Bakoitzaren batz-besteko totalari begira, honako



datuak azaleratzen dira 7.taulan ikusi daitekeen moduan:

- Lehenengo zikloan 5 galderatan eman izan dira batz-batzeko baxuak:
  - 2 = Besteek alabantzak eta goraipamenak egitean era egokian erantzutea.
  - 16 = Norbaitek elkarrizketa bat amaitutzat ematen badu, egoki erantzutea.
  - 18 = Beste ikaskideek mantendutako elkarrizketetan sartzea.
  - 29 = Bere iritziak era egokian aurkeztea eta defendatzea.
  - 40 = Besteekin arazoak izatean, aldezturik praktikan jartzeko irtenbidea planifikatzea.
  
- Bigarren zikloan 8 galderatan:
  - 2 = Besteek alabantzak eta goraipamenak egitean era egokian erantzutea.
  - 11 = Besteekin elkarrizketak hastea.
  - 14 = Besteekin elkarrizketetan aktiboki parte hartzea (gaiak aldatu, e.a.).
  - 16 = Norbaitek elkarrizketa bat amaitutzat ematen badu, egoki erantzutea.
  - 17 = Norbaitek talde bateko elkarrizketan sartu nahi badu, egoki erantzuten lantzen dut.
  - 18 = Beste ikaskideek mantendutako elkarrizketetan sartzea.
  - 24 = Besteen aurrean emozio eta sentipen ezatsegin/negatiboak (haserrea, tristura, porrota), era egokian azaleratzea.
  - 31 = Besteekin erlazionatzean, norberari aurkezturiko arazoak identifikatzea.
  
- Hirugarren zikloan 15 galderatan:
  - 1 = Besteei goraipamenak egitea eta gauza positiboak esatea.

- 2 = Besteek alabantzak eta goraipamenak egitean era egokian erantzutea.
- 5 = Beste ikaskideek ariketak edo jokoak egiten daudenean, hauekin biltzea.
- 11 = Besteekin elkarrizketak hasia.
- 14 = Besteekin elkarrizketetan aktiboki parte hartzea (gaiaz aldatu, e.a.).
- 15 = Elkarrizketak era egokian amaitzea.
- 16 = Norbaitek elkarrizketa bat amaitutzat ematen badu, egoki erantzutea.
- 18 = Beste ikaskideek mantendutako elkarrizketetan sartzea.
- 21 = Bere buruari gauza positiboak esatea.
- 22 = Besteen aurrean, haiei buruz gauza positiboak adieraztea.
- 23 = Besteen aurrean emozio eta sentipen atsegina/positiboak (poza, zoriontasuna, e.a.), era egokian azalera.
- 24 = Besteen aurrean emozio eta sentipen ezatsegina/negatiboak (haserrea, tristura, porrota), era egokian azalera.
- 25 = Besteen sentipen eta emozio positibo eta atseginei (zoriontasuna, e.a.) egoki erantzutea.
- 31 = Besteekin erlazionatzean, norberari aurkezturiko arazoak identifikatzea.
- 40 = Besteekin arazoak izatean, aldezturik praktikan jartzeko irtenbidea planifikatzea.

**7. taula.** Ziklo bakoitzeko galderen bataz-besteko totala.

GALDERAK	$\bar{x}$		
	1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
1	-	-	3,21
2	3,36	3,45	3,29
5	-	-	3,17
11	-	3,35	2,96
14	-	3,25	3,46
15	-	-	3,33
16	3,40	3,35	3,00

17	-	3,40	-
18	3,32	3,35	3,04
21	-	-	3,25
22	-	-	3,13
23	-	-	3,33
24	-	3,45	3,42
25	-	-	3,46
31	-	3,40	3,42
39	3,40	-	-
40	3,12	-	3,25

Hau ikusita, zikloen arteko bataz-bestekoaren konparaketa egin da galderen artean. Kasu honetan berriro ere, lehenengo eta hirugarren zikloen artean agertu dira datu esanguratsu gehien 8. taulan gurutzeen bidez ikusi daitekeen moduan. Honela bada, lehenengo eta bigarren zikloen artean, galdera bakarrean ateratzen da lanketaren emaitzetan ezberdintasun signifikatiboa, hots, 20.ean, ( $U=183,000$ ;  $p= 0,041$ ), diferentziaren efektuaren tamaina ertainarekin (Cohen-en  $d= 0.28$ ). Bigarren eta hirugarren zikloen artekoan berriz, gabeziak bi galderetan atera dira; lehenengoan eta bostgarrenean, bietan diferentziaren tamaina handia delarik: 1. galdera ( $U=150,500$  ;  $p=0,026$  ), (Cohen-en  $d= 0.66$ ) eta 5. galdera ( $U=164,000$ ;  $p=0,048$  ), (Cohen-en  $d= 0.65$ ). Lehenengo eta hirugarren zikloen arteko konparaketan zentratuz beraz, 13. galdera da, ( $U=197,000$  ;  $p=0,028$  ), diferentziaren tamaina ertaina ateratako bakarra (Cohenen  $d= 0.46$ ). Bestetik, honakoetan ere gabeziak atera dira: 1go galdera, ( $U= 199,000$ ;  $p=0,034$  ), (Cohenen  $d= 0.53$ ) ; 10.galdera, ( $U=178,000$  ;  $p=0,009$  ), (Cohenen  $d= 0.61$ ) ; 11. galdera, ( $U=181,000$  ;  $p= 0,012$ ), (Cohenen  $d= 0.70$ ) ; 21. galdera, ( $U=174,000$  ;  $p= 0,008$ ), (Cohenen  $d= 0.73$ ) ; 22. galdera, ( $U= 173,500$ ;  $p= 0,008$ ), (Cohenen  $d= 0.79$ ) ; 23. galdera, ( $U=201,000$  ;  $p= 0,036$ ), (Cohenen  $d= 0.56$ , guztietan diferentziaren tamaina handiarekin.

**8. taula.** Zikloen arteko konparaketa galderetan.

GALDERAK	1go ZIKLOA 3. ZIKLOA	1go ZIKLOA 2. ZIKLOA	ZIKLOA 3. ZIKLOA
----------	-------------------------	-------------------------	---------------------

1	X	-	X
5	-	-	X
10	X	-	-
11	X	-	-
13	X	-	-
20		X	-
21	X	-	-
22	X	-	-
23	X	-	-

### **3.2. Metodo zehatzen erabilera:**

Tutoreek metodo JAKINAK erabiltzen ote dituzten ala ez aztertu da erregresio logistikoaren bidez (*Wald-en  $\chi^2$  estadigrafoa*): ziklo ezberdinetan (aldagai independentea) landutako giza-trebetasunak lotu egin dira metodo espezifiko baten erabilerarekin (aldagai dikotomikoa). Hau honela, emaitzek adierazten dute lehenengo zikloko tutorea izateak, lotura zuzena duela metodoen erabilerarekin, hauek erabiltzearen probabilitatea handiagoa ateratzen baita besteekiko (Wald  $\chi^2= 4.399$ ;  $p=0.036$ ).

Bestetik, prozesu estatistiko berbera erabiliz, metodo zehatzen erabilera lotu egin da landutako gizarte trebetasun espezifikoekin. Datuen erantzunak egiaztatzen dute “Elkarrizketarako trebetasunak” alor orokorraren barne dauden trebetasunak alde esanguratsua dutela Lehen Hezkuntzako irakaskuntza sistematikoan (Wald  $\chi^2= 5.772$ ;  $p= 0.016$ ).

Metodo zehatzen erabileran baietza eman duten tutoreek honako programak erabiltzen dituztela adierazi dute:

- “*Pentazitate programa*” (adimena, gorputza, emozioak, nortasuna eta gizartea).
- “*Aurkitzen proiektua. Gure harremanak hobetzeko gaitasunak*” (Erein argitaletxea)
- “*Konpon txokoa proiektua*”.
- “*Lagunekin baratzean. Agipadeko prebentzio programa*”.
- “*Arazoekiko transformazioa*” programa.

- *“Bortxakeria gabeko komunikazioa eta erresistentzia proiektua”.*
- *“Adingabeentzako interneten erabilera seguru eta osasungarria programa”*
- *“Sexualitatea eta sentimenduak programa”.*



#### 4. ONDORIOAK:

Jada azaldu den moduan, 3'5-eko bataz-bestean “asko” edo “gutxi” lantzearen muga jarri delarik, “asko” lantzen diren taldean sartuko litzateke gizarteratze trebetasunak lantzeko bataz-beste totala eta baita ziklo bakoitzarekiko bataz-beste orokorra ere. Hala ere kontuan hartu beharrekoa da, bataz-besteko orokor hauek nahiko parekatuak daudela eta ez direla lau zifrara ailegutzen (4= ia beti lantzea). Datuek islatzen duten moduan, lehenengo zikloan jorratzen dute gehien giza-trebetasunak gaia, bigarren zikloan gutxiago eta azkenik, hirugarren zikloan, hiruetatik gutxiena.

Alor orokorrak aztertzerakoan ordea, antzeman daiteke gehien landutako alorra “Norberaren arazo interpersonalak konpontzeko trebetasunak” dela, gutxien landutakoa “Elkarrizketarako trebetasunak” den aldetik. Kasu honetan zikloen artean, alor guztiak lehenengo zikloan jorratzen dira gehien eta hirugarrenean gutxien. Beste bi alorren inguruan, bietatik gehien lantzen dena “Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak” alorra izango litzateke, honen azpian “Lagunak egiteko trebetasunak” alorra geratzen delarik. Gehien lantzen den alorretik gutxien lantzen denaera, alorrek honela antolatuko lirateke:

1. Norberaren arazo pertsonalak konpontzeko trebetasuna
2. Sentimendu, emozio eta iritziekin lotutako trebetasunak
3. Lagunak egiteko trebetasunak
4. Elkarrizketarako trebetasunak

Azpi-alorren bataz-besteko totala egitean, bost azpi-alorretan azaltzen dira bataz-besteko baxuak (3'5 baino txikiagoak). Hauetatik bataz-besteko altuenak dituztenak, hots, gehien lantzen direnak “Besteak indartu eta adoretu” azpi-alorra (“Lagunak egiteko trebetasunak” alorraren barne) eta “Besteekin elkarrizketak hasi” azpi-alorra (“Elkarrizketarako trebetasunak” alorraren barne) izan dira. Bataz-besteko baxuena ordea, “Elkarrizketak bukatu” azpi-alorrean izan da (aurrekoaren alor orokor berbera). Hau ikusita, zikloen arteko bataz-

besteak konparatzean ikusten da nola totalean batz-besteko baxuena atera den azpi-alorrean (“Elkarrizketak bukatu”) ziklo bakoitzak bere aldetik gabeziak dituen. Honetaz gainera aipatzea, bigarren zikloak eta hirugarrenak bat egiten dutela zenbait azpi-alorretan dituzten gabezietan, hala nola “Besteekin elkarrizketan hasi” eta “Beste batzuekin elkarrizketan sartu” azpi-alorretan. Gainera, totalean batz-beste esanguratsuak atera ez diren azpi-alorretan ere antzematen dira ziklo hauetan hutsuneak: “Emozioak azaleratu” azpi-alorrean bi zikloek eta “Norberaren baieztapen positiboa” hirugarren zikloak bakarrik. Amaitzeko, batz-besteko altuenak atera diren azpi-alorretan esan beharra dago hirugarren zikloak hutsuneak sumatzen dituela adierazitako bietan, eta bigarren zikloak hauetako batean: “Besteak indartu eta adoretu” azpi-alorra hirugarren zikloan bakarrik, eta bigarrena, “Besteekin elkarrizketan hasi”, bigarrenean eta hirugarren zikloetan.

Datu hauek, zikloen arteko batz-bestekoen konparaketarekin erlazionatu izan dira. Ikusten denez, hirugarren zikloak aipaturiko zazpi azpi-alorretan eta bigarren zikloak batean sumatzen dituzte hutsuneak. Zikloen arteko konparaketan hauetako bi azaleratzen dira: Lehenengo eta hirugarren zikloaren arteko konparaketan, “Elkarrizketak hasi” azpi-atala, tamainaren diferentzia handiarekin hirugarren zikloaren kaltetan. Azpi-alor hau batz-besteko orokorretan baxuenetakoa ateratzen da. Tamainaren diferentzia handiarekin ere beste hauek agertzen dira ziklo hauen artean: “Norberaren baieztapen positiboa”; “Emozioak azaleratu” eta “Besteekin batera jokoetan sartu”. Diferentziaren tamaina ertaina dutenak ordea bi hauek dira: “Kooperazioa eta elkarbanatzea” eta “Elkarrizketak mantendu”, hauek lehenengo zikloan gehiago lantzen direnaren seinale.

Aurretik aipatu izan da zikloen arteko konparaketan bi azpi-alor errepikatzen zirela. Bigarrena bada, bi eta hiru zikloen arteko konparaketan ateratzen da, “Besteekin batera jokoetan sartzea” azpi-alorrean hain zuzen ere hirugarren zikloaren kaltetan hau ere. Honetan, batz-besteko orokorrak egitean ikusi izan da nola azpi-alor honetan, bai bigarren eta bai hirugarren zikloan hutsuneak azaleratzen ziren. Honela bada, oraingoan ikusi eta erlazionatu daiteke, bien arteko diferentziaren tamaina handia dela. Amaitzeko, lehenengo eta bigarren zikloen konparaketan azpi-alor bakarrean ateratzen da; “Taldeko elkarrizketak” diferentziaren tamaina ertainarekin.



Guzti hau kontuan izanda, orokorrean esan daiteke “Lagunak egiteko trebetasunak” alor orokorrean dauden azpi-alderdiak errepikatzen direla gehien zikloen arteko konparaketan (“Besteekin batera jokoetan sartu” lehenengo maila batean eta “Kooperazio eta elkarbanatzea” bigarren batean). Hauen ondoren “Elkarrizketarako trebetasunak” alderdi orokorraren barnekoak (Elkarrizketak hasi; Elkarrizketak mantendu; Taldeko elkarrizketak) eta “Sentimendu, emozio eta iritziekin lotutako trebetasunak” alderdi orokorren barneko azpi-alderdiak (Norberaren baieztapen positiboa; Emozioak azaleratu) maila berean ematen direlarik. Hala ere, zikloen arteko batz-beste koetan gabezi batzuk nabarmentzen diren arren, ziklo bakoitzean, banaka batz-bestekoa eginez ikusten da nola orokorrean “Elkarrizketarako trebetasunak” alorraren barnean hiru zikloek huts egiten duten “Elkarrizketak bukatu” azpi-alorrean, hori baita lehen aipatu bezala totalen batz-besteko baxuena ateratako azpi-alorra. Hortaz, ikusten da nola aipatutako azpi-alorretan, lehenengo zikloak lantzen dituen gehien, hirugarren edo bigarren zikloekin konparatu ezkerre. Era berean, bigarren eta hirugarren zikloak konparatzean, hirugarrenak ditu gabezi gehien.

Amaitzeko, galderak solte aztertu eta gero, 17-tan ikusi izan dira trebetasunen lanketaren gabeziak. Hirugarren zikloak horietatik 15-etan huts egiten du, bigarren zikloak 8 galderatan eta azkenik lehenengoak 5 galderatan. Azpi-alor bakoitzaren barne bi galdera daudenez gero, emaitza hauek azpi-alorretako ondorioekin konektatu daitezke. Galdera bakoitza 9. taulan ikusi daitezke.

**9. taula.** Azpi-alorren barne dauden galderak.

1	Besteei goraiamenak egitea eta gauza positiboak esatea.
2	Besteek alabantzak eta goraiamenak egitean era egokian erantzutea.
5	Beste ikaskideek ariketak edo jokoak egiten daudenean, hauekin biltzea.
11	Besteekin elkarrizketak hastea.
14	Besteekin elkarrizketetan aktiboki parte hartzea (gaiaz aldatu, e.a.).
15	Elkarrizketak era egokian amaitzea.
16	Norbaitek elkarrizketa bat amaitutzat ematen badu, egoki erantzutea.
17	Norbaitek talde bateko elkarrizketan sartu nahi badu, egoki erantzutea.
18	Beste ikaskideek mantendutako elkarrizketetan sartzea.
21	Bere buruari gauza positiboak esatea.

22	Besteen aurrean, haiei buruz gauza positiboak adieraztea.
23	Besteen aurrean emozio eta sentipen atsegin/positiboak (poza,zoriontasuna,e.a.), era egokian azalera ztea.
24	Besteen aurrean emozio eta sentipen ezatsegin/negatiboak (haserrea,tristura,porrota), era egokian azalera ztea.
25	Besteen sentipen eta emozio positibo eta atseginei (zoriontasuna, e.a.) egoki erantzutea.
29	Bere iritziak era egokian aurkeztea eta defendatzea.
31	Besteekin erlazionatzean, norberari aurkezturiko arazoak identifikatzea.
40	Besteekin arazoak izatean, alde z aurretik praktikan jartzeko irtenbidea planifikatzea.

Lehenengo zikloari dagokionez, bigarren galderan hutsunea dagoela ikusi daiteke. Honek erakusten duena da, 1 eta 2 galderek “Besteak indartu eta adoretu” azpi-alorra osatzen duten aldetik, lehenengo galderan bataz-besteko altua atera dela, baina horrek ez du bigarren galderari egokitutako trebetasunaren beharra guztiz asetzen. Berdina gertatzen da 15-16 galderek osatzen duten azpi-alorrean (“Elkarrizketak bukatu”), kasu honetan 16.galderan dago hutsunea, eta berdina 17-18 galderetan (“Beste batzuen elkarrizketetan sartu” azpi-alorra), 18.-ean hutsunea sumatzen da. 31-32.ean (“Norberaren arazoak identifikatu”), 31.ean soilik. 39-40 galderek osatutako azpi-alorrean ordea (“Soluzioa praktikan jarri”), honetan bai bi galderetan gabezia dagoela.

Bigarren zikloari begira, lehenengo zikloan bezala, 2. galdera agertzen da bakarrik; 11-12.galderek osatzen duten azpi-alderdian (“Elkarrizketak hasi”), 12.ean dago gabezia; 13-14 azpi-alderdian (“Elkarrizketak mantendu”), 14.-ean bakarrik; 15-16. azpi-alorrean (“Elkarrizketak bukatu”), lehenengo zikloan bezala 16.ean bakarrik; 17-18.ean (“Beste batzuekin elkarrizketetan sartu”), bietan gabezia antzematen da; 23-24.ean (“Emozioak azalera tu”), 24.ean bakarrik eta amaitzeko, 31-32.ean (“Norberaren arazoak identifikatu”), 31.ean bakarrik.

Azkenik, hirugarren zikloan honako hutsuneak antzematen dira: 1-2 azpi alorrean (“Besteak indartu eta adoretu”), lehenengo eta bigarren zikloetan ez bezala, bietan ageri da; 5-6.ean (“Besteekin batera jokoetan sartu”), 5.ean soilik; 11-12.ean (“Elkarrizketak hasi”), 11.ean; 13-14.ean (“Elkarrizketak mantendu”), 14.ean bakarrik; 15-16. azpi-alorrean (“Elkarrizketak bukatu”), bietan ageri da; 17-18.an (“Beste batzuekin elkarrizketetan sartu”), lehenengo zikloan bezala, 18.ean agertzen da; 21-22. azpi-alorrean (“Norberaren

baieztapen positiboa”), bietan; 23-24 (“Emozioak azaleratu”), bietan; 25-26.ean (“Emozioak jaso”), 25.ean bakarrik; 31-32. azpi-alorrean (“Norberaren arazoak identifikatu”) bigarren maila bezala, 31.ean soilik eta amaitzeko 39-40. azpi-alorrean (“Soluzioa praktikan jarri”), 40.ean.

Honela bada, ziklo bakoitzak galdera zehatz batzuetan ematen dituen gizarteratze trebetasun zehatz batzuen lanketaren beharra dute. Garrantzitsua da azpi-alor bakoitzeko trebetasunak osotasunean lantzea eta ez horietako bat soilik. Orokorrean ikusten da nola “Elkarrizketarako trebetasunak” azpi alorrean hutsune gehien dagoen, honako azpi-alorrean zehazki: “Elkarrizketak hasi”; “Elkarrizketak mantendu”; “Elkarrizketak mantendu”; “Beste batzuen elkarrizketetan sartu”. Hauen ondoren, “Sentipen, emozio eta iritziekin lotutako trebetasunak” alorreko trebetasunak nagusitzen dira, zehazki azpi-alor hauetan: “Norberaren baieztapen positiboa”, “Emozioak azaleratu” eta “Emozioak jaso”. Beste bi alorrak aldiz parekatuak geratzen dira hots, “Lagunak egiteko trebetasunak”, azpi-alor zehatz hauetan: “Besteak indartu eta adoretu” eta “Besteekin batera jokoetan sartu”, lehenengoak hutsune gehien sumatzen duelarik eta bestetik, “Norbanakoaren arazo interpersonalak konpontzeko trebetasunak” alorra, azpi-alor zehatz hauetan: “Norberaren arazoak identifikatu” eta “Soluzioa praktikan jarri” azken honek hutsune nabariena sumatzen duelarik.

Amaitzeko, galderak zikloen arteko konparaketan oinarrituz, lehenengo eta hirugarren zikloen arteko aldea izugarria da beste zikloen arteko konparaketei begira. Honetan, 9 galderetatik 7 galderetan gabeziak antzematen dira. Lehenengo eta bigarren zikloen artean bakarra, eta bigarren eta hirugarren zikloen artean bi besterik ez.

Lehenengo eta hirugarren zikloen alderaketan zentratuz, ezberdintasun gehien ikusten den alderdia “Sentimendu, emozio eta iritziekin lotutako trebetasunak” da. Badirudenez, hirugarren zikloan ez da alderdi hau gehiegi lantzen. Alderdi honetaz aparte, “Lagunak egiteko trebetasunak” eta “Elkarrizketarako trebetasunak” alderdi orokorretan ere hutsuneak agertzen dira, ez horrenbeste ordea.

Lehenengo eta bigarren zikloari begira, ikusi daitekeenez, lehenengo

mailan “Sentimendu, emozio eta iritziekin lotutako trebetasunak” azpi-alderdiaren barneko trebetasunak gehiago lantzen dira bigarren mailan baino eta bestetik, bigarren eta hirugarren zikloei begira, “Lagunak egiteko trebetasunak” alderdian ezberdintasuna nabaritzen da, hirugarren zikloaren kaltetan.

Zikloen arteko konparaketetan beraz, ikusi ahal izan da nola lehenengo eta hirugarren zikloen artean ezberdintasun nabariena dagoen hirugarren zikloak gaia gutxien lantzen duen aldetik. Lehenengo eta bigarren edota bigarren eta hirugarren zikloen arteko konparazioan aldiz, ez dira horrenbeste ezberdintasun estatistiko atera.

Metodologia zehatza erabiltzearen faktorea argi geratzen da beraz datu hauekin, hirugarren zikloan gizarteratze trebetasunak gutxien lantzen diren esparrua delarik. Datuetan islatzen da gainera, nola nahiz eta lehenengo zikloan metodo ezberdinak erabiltzen direnaren probabilitate altua dagoen, datuen analisirako aintzat hartu den batz-besteko mugatik (3'5-etik behera), zenbait trebetasun ez direla osotasun batean lantzen, eta berdina bigarren zikloarekiko.

## 5. PROPOSAMENAK

### 5.1. Landu beharreko Gizareratze Trebetasunak:

Jada aipatu den bezala, alor bakoitzeko, bost azpi-alor aurkezten dira. Ikerketa honetarako selekzionaturiko alorretan beraz, PHEIS programako 2,3,4 eta 5. alorrak hautatu direnez gero, hauen barne honako azpi-alorrak aurkezten dira, hurrengo zerrendan ikusten den moduan:

<ul style="list-style-type: none"><li>2. Lagunak egiteko trebetasunak<ul style="list-style-type: none"><li>2.1. Besteak indartu eta adoretu</li><li>2.2. Gizareratze hastapenak</li><li>2.3. Besteekin batera jokoetan sartu</li><li>2.4. Laguntza</li><li>2.5. Kooperazio eta elkarbanatzea</li></ul></li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>3. Elkarrizketarako trebetasunak<ul style="list-style-type: none"><li>3.1. Elkarrizketak hasi</li><li>3.2. Elkarrizketak mantendu</li><li>3.3. Elkarrizketak bukatu</li><li>3.4. Beste batzuekin elkarrizketan sartu</li><li>3.4. Taldeko elkarrizketak</li></ul></li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>4. Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak<ul style="list-style-type: none"><li>4.1. Norberaren baieztapen positiboa</li><li>4.2. Emozioak azaleratu</li><li>4.3. Emozioak jaso</li><li>4.4. Norberaren eskubideak defendatu</li><li>4.5. Norberaren ideiak eta iritziak defendatu</li></ul></li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>5. Norberaren arazo pertsonalak konpontzeko trebetasunak<ul style="list-style-type: none"><li>5.1. Norberaren arazoak identifikatu</li><li>5.2. Konponbideak bilatu</li><li>5.3. Ondorioak aurreikusi</li><li>5.4. Soluzio bat aukeratu</li><li>5.5. Soluzioa praktikan jarri</li></ul></li></ul>

Hau honela, azpi-alor bakoitzeko bi gizarte trebetasun daude, baina komenigarria da proposamenekin hasi aurretik alor bakoitzeko azalpen labur bat egitea, ideia orokorra izatearren:

#### 2. ALORRA: Lagunak egiteko trebetasunak

Berdinkideen arteko interakzio edo elkarrekintza positibo eta egokiak hasteko, garatzeko eta mantentzeko trebetasun erabakigarriak sartzen dira talde honetan.

Adiskidetasunak, laguntza testuinguru estimulatzailea, plazerra eta asetasuna inplikatzeko du partaideen aldetik. Ongizate pertsonalerako esperientzia dugu, gizarteratze garapen afektibo egoki baterako.

Lagunak dituzten eta hauekin erlazio positiboak mantentzen dituzten haurrek, gizarteratze egokitzapen pertsonal handiagoa izan ohi dute.

### *2.1. Besteak indartu eta adoretu:*

Beste pertsoneri gauza positibo eta atseginak esatea edo egitea inplikatzeko du. Hots, besteek duten zerbait gustuko duzula esatea, besteek esandako edo egindako zerbait gustatzen zaizula esatea, e.a. Besteen itxuraren inguruko komentarioak ere izan daitezke eta hau konplimendu, goraipamen, esaldi positibo, zoriontze edo hitz ederrekin gauzatzen da.

Trebetasun hauen barne konplimendu eta goraipamenak jasotzea dugu ere bai, ez soilik hauek egitearenak.

### *2.2. Gizarteratze hastapenak:*

Besteekin elkarrekintzan hasteko beharrezko portaera eta trebetasunak daude hemen. Jokoen, ariketen edo elkarrizketen bidez norbaitekin erlazionatzea inplikatzeko du, hots, norbanakoak besteei jolasteko, hitz egiteko edo zerbait burutzeko eskatzen dionean.

Trebetasun hauen barne norbanakoari besteek egindako gizarteratze hastapenak ere sartzen dira zeharka.

### *2.3. Besteekin batera jokoetan sartu:*

Besteak aritzen ari diren joko zein ariketetan sartzea izango litzateke. Haurrengan berdinkideekin erlazionatzeko oinarritzko modua joko den aldetik, haurren arteko erlazioak era natural eta espontaneoan agertzen dira.

Azpi-alor honen barnean ere agertzen da norbanakoak burutzen ari duen joko batean beste pertsona bat edo batzuk sartu nahi dutenean era egokian erantzutearen trebetasuna.

#### *2.4. Laguntza:*

Honen barne bi alderdi aurkezten dira; Laguntza eskatzea eta laguntza eskaintzea.

Alde batetik, laguntza eskatzean, norbanakoak norbaiti zerbait egiteko eskatuko dio, berak hori aurrera eramateko ezintasuna duenean.

Bestetik, laguntza eskaintzeak suposatzen du, norbait laguntzea honek zerbait egiteko ezintasuna aurkeztean eta guri zuzenean eskatzean edota gu horretaz konturatzean pertsona horrek deus esan gabe.

#### *2.5. Kooperazio eta elkarbanatzea:*

Kooperazioak suposatzen du ariketa edo jardun komun batean haur batek baino gehiago parte hartzen dutenean, haien artean elkarrekiko jokaera motore edo hitzezkoak izatea, erlazioaren kontrolaren elkartrukeak egitea (adibidez, ariketa edo jokia bideratzea), edo aritzen ari diren horretan aurrera eramateko erraztasunak ematea.

Haurren arteko kooperazioa hobeto ulertzearren hona hemen adibide batzuk: era egokian eta laguntasun jarrerarekin esku hartzea, parte-hartze txandak errespetatzea, jokoarentzat edo ariketarentzat ideia eta iradokizunak ematea eta onartzea, informazioa eskaini eta jasotzea, e.a.

Bestetik, elkarbanatzeak berarekin dakar besteei objektu bat eskaini edo ematea edo objektu hori besteekin batera erabiltzea. Honez gain, gauzak besteekin erabiltzeaz gain besteei gauzak eskatzea ere sartzen da azpi-alor honetan.

### 3. ALORRA: Elkarrizketarako trebetasunak:

Hirugarren alor honetan haurrei besteekin elkarrizketak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko trebetasunak aurkezten dira.

Edozein egoeratan praktikan jartzen diren trebetasunak diren aldetik, oso garrantzitsuak dira haurrak besteekin elkar-erlazioan aritzeko. Haurren arteko elkarrekintzak efektiboak izan daitezen, norbanakoa besteekin egoki komunikatzea ezinbestekoa da. Hitzaren bidez sentimenduak azaltzeko aukera dugu, arazoak konpontzeko negoziazioak egiteko aukera dugu, goraipamenak egiteko e.a. Horrenbestez, elkarrizketa ez da soilik parte-hartzerako tresna bezala ikusi behar, ikaskuntza prozesurako erreminta ere dugu hau.

### *3.1. Elkarrizketak hasi:*

Besteekin hitz elkartrukea gauzatzea dugu hau. 2.2. azpi-alorrean dauden trebetasunekin erlazioa dute hemen daudenak (Gizarteratze hastapenak).

Honekin batera norbaitek gurekin elkarrizketa bat hasi nahi duenean egoki erantzutea aurki dezakegu ere bai.

### *3.2. Elkarrizketak mantendu:*

Besteekin denbora tarte batez era atseginean hitz egiten aritzeko trebetasunak ditugu hemen. Honetarako, trebetasun ezberdinak praktikan jartzea ezinbestekoa da, hala nola galderak egitea, hauek erantzutea, gaiaz aldatzea, hitza beste bati uztea, beste partaideek esandakoa entzutea e.a.

### *3.3. Elkarrizketak bukatu:*

Era egoki eta atseginean elkarrizketak amaitzea inplikutzen du. Elkarrizketak amaitzeari ez zaio garrantzia kendu behar, hastapenek eta hitz egitea mantentzeak garrantzizkoak diren arren, hau lantzea ere behar-beharrezkoa da.

### *3.4. Beste batzuekin elkarrizketan sartu:*

Besteek mantentzen ari diren elkarrizketan sartzea izango litzateke. Trebetasun hauek 2.3. azpi-alorrean (Besteekin batera jokoetan sartu)



daudenekin oso erlazionaturik daude.

Aparte, norbanakoak mantentzen ari duen elkarrizketan beste haur batek sartu nahi duenean, erantzun egokia emateko trebetasunak ere hemen sartuko genituzke.

#### *3.4. Taldeko elkarrizketak:*

Taldeko elkarrizketetan aktiboki eta era egokian parte-hartzeko trebetasunak ditugu hemen.

Gizarteratze trebetasun hauek nahiko konplexuak dira. PEHIS-en trebetasun hauen barne zehaztasun espezifikoagoak egiten dira baina ikerketa honetarako ez da honetan luzatuko.

#### 4. ALORRA: Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak:

Laugarren alorra Autoexpresioa, Autobaieztapena edo Asertibitatea izanda genezakela adierazten du, honen barne Asertibitate kontzeptuan landutako kontzeptuez ari baikara. Marko teorikoan azaldu den bezala, azken kontzeptu honek norbanakoaren espresioa eta eskubide propioen defendatzea esan nahi du, betiere besteenak errespetatuz.

Norbanakoaren eskubideak bortxatuak direnean, hiru motatako erantzunak eman ohi dira; pasiboa, agresiboa eta asertiboa. Lehenengo jokaerari erreferentzia eginez, esan genezake pertsona hauek haien eskubideak urraturik dituztela, ez dituzte haien helburuak betetzen eta honengatik zapuzturik eta antsietate handiarekin eta zapuztuta sentitzen dira, besteei uzten baitiete haien partez erabakiak hartzen. Mendekotasun portaera izan ohi dute, besteek haien beharrez kontura daitezen esperoan. Bigarren jokaeraren inguruan, agresiboak direnek, besteen eskubideak hausten edo urratzen ditu, besteen hautapenetan sartzen da, besteak mesprezitzen eta umiliatzen ditu era autoritarioan. Asertiboki erantzuten dutenek ordea, haien eskubideak defendatu eta besteenak errespetatzen ditu, beren kabuz hautapenak egiten dituzte, beren helburuak lortzen dituzte, beren buruarekin ondo sentitzen dira eta besteek haien desirak eta iritzia baloratu eta errespetatu egiten dituzte.

Honela bada, helburua haurrek gizarteratze era egokiak ikastea, haien emozioak adierazi eta besteenak jasotzea eta besteen eskubideak kontuan hartuz beraienak ere asertiboki defendatzea izango litzateke.

#### *4.1. Norberaren baieztapen positiboa:*

Norbanakoak bere buruari egindako hitz adierazpen positiboei egiten die erreferentzia; hots barneko lengoaiaren bidez edo besteen aurrean esan daitezkeen adierazpen positibo eta atseginak: haien gauza materialen inguruan edo egindako edo lortutako gauzen inguruan.

Honek segurtasuna ematen dio haurrari eta ondorioak ditu bere autoestimuan eta honela, eragin izugarria du besteekin egin beharreko elkar-ekintzetan.

Trebetasun hauetan erantsi ditzakegu norbanakoak bere buruari egiten dizkion hitz adierazpen negatiboen murrizketa.

#### *4.2. Emozioak azaleratu:*

Honek inplikutzen du norbanakoak besteei bere sentipenak, emozioak, egoera pertsonala e.a. adieraztea. Honez gain, besteek norbanakoan sentiarazten diotenaren komunikazioa ere sartzen dugu talde honetan.

Emozioak azaleratzeko, trebetasun ezberdinak jarri behar dira praktikan, hala nola, norbanakoaren sentipen eta emozioen identifikazioa, emozioen kausen azterketa, emozioak azaltzeko hitzezko eta gorputzezko espresioa, e.a.

Ezinbestekoa dugu emozio eta sentipen positiboak eta negatiboak ezberdintzea eta trebetasun hauekin lortu nahi dena da ikasleek ulertzea nola egoera bakar batean besteek norberak dituen sentipenak ez diren beste batzuk edo intentsitate ezberdinekoak izan ditzaketen. Norberak sentipen ezberdinak izateko askatasuna du, baina beti ere sentipen horiek besteengan izan ditzaketen ondorioez kontzientzia izanez.

#### *4.3. Emozioak jaso:*

Azpi-alor honetan, besteek adierazitako emozio eta sentimenduei era

egokian erantzuteko trebetasunak agertzen dira. Baita norbanakoak besteengan eragindako sentimenduei erantzutekoak ere. Trebetasun hauek era egokian burutzeko, oinarrizkoa da besteen sentipen zein emozioak identifikatzea eta honen ostean, hauei hitz eta gorputz espresio egokian erantzutea.

Hauen barne gainera emozio positiboez gain, negatiboen jasotzea dugu baita ere.

#### *4.4. Norberaren eskubideak defendatu:*

Trebetasun hauek, besteei norbanakoaren eskubideak urratzen ari direla, injustuki tratatzen ari dutela edo gustatzen ez zaigun zerbait egiten ari direla komunikatzean datza, hots; Ezezkoak adieraztea, besteen eskakizunak alde batera uztea, bortxakeriari aurre egitea eta defendatzea, galderak egitea, kexa edo erreklamazioak egin eta hauei ere erantzutea, eskaerak egitea, e.a. Hau da, norbanakoaren eskubideak defendatu behar dira, besteenak urratu gabe.

Aipatutakoaz gain, besteek haien eskubideen inguruan defendatzean, hauek jaso eta erreakzionatzeko trebetasunak sartuko lirateke hemen.

#### *4.5. Norberaren ideiak eta iritziak defendatu:*

Egoera ezberdinetan, norbanakoaren ikuspegia eta ideiak azalratzea inplikatzan dute. Hori bai malgutasuna beharrezkoa da norbanakoaren eskubideak zein ideiak defendatzean. Besteenak errespetatu eta onartu behar dira nahiz eta norbanakoarenekin bat ez etorri.

### 5. ALORRA: Norberaren arazo pertsonalak konpontzeko trebetasunak:

Egunerokotasunean norbanakoak besteekin sortutako arazo interpertsonalak era konstruktibo eta positibistan konpontzea eskatzen zaie hurrei alor honetan. Hots, arazoak sor daitezkeen egoerak ulertu eta aurreikustea, besteen arazo, behar edo sentipenengan sentsibilitate handiagoa izatea, arazoen konponbide asko formulatzea, arazoak konpontzeko topatu

ditzaketen obstakuloen aurreikuspena garatzea, e.a.

Ikasleek aurki ditzaketen arazo ohikoenak honakoak izan daitezke:

- a) Baieztatze, errefusatzeko edo ezezekoak.
- b) Eraso fisiko edo hitzezko agresioak, inposaketak, taldearen presioa, mehatxuak, probokazioak, e.a.
- c) Norbanakoaren objektu pertsonalen eta jabeakidetasunen onespenez eta narriadurak
- d) Salaketakoak, erruztapenekoak, bidegabekeriak, norbanakoaren eskubideen urratzeak, apuruak eta laguntzaren beharra, e.a.

Arazo interpersonal baten aurrean, beharrezkoa da jokatu aurretik etetea eta pentsatzea, hasierako impultsoa kontrolpean mantentzea, eta pentsatu gabe azkar batean jokatzeko. Batez ere haserrea edo agresibitatea sorrarazten duten agresion arazoak edo provocacion-ekoak direnean. Auto-kontrol estrategia baten beharra ezinbestekoa da ( adibidez, hamar arte zenbatzea, sakon arnastea, lasai mantentzeko barne-instrukzioak ematea e.a.)

### *5.1. Norberaren arazoak identifikatu:*

Besteekin egoera gatazkatsu bat dagoen edo ez errekonozitzean datza, arazo hori zehaztea, deskribatzea eta mugarritzea. Beste alde batetik, ezinbestekoa da lortu nahi den helburua ere zehaztea.

Honetarako, arazo bat dagoenaren errekonozimenduaren ondoren, arazo horren egoera eta norbanakoaren edo besteen erresponsabilitatea zehaztu behar da, eta honenbestez sentsibilitate interpersonala martxan jarri behar da, hots, arazoa konpondu daitekeela eta hau beharrezkoa dela argi izatea. Bigarrenik, arazoa deskribatu eta mugarritu behar da arazoa zehazki zein den jakiteko. Hirugarrenik, norbanakoaren eta beste kideen barne sentipenak eta pentsamenduak identifikatu behar dira eta laugarrenik eta azkenik, kausalitatea errekonozitu behar da. Arazoa sortu aurretik zer gertatu ote den eta bakoitza nola sentitzen eta nola jokatzen duen eta horrek jokaeran izan duen eragina ulertzea.

### *5.2. Konponbideak bilatu:*

Besteekin arazoak planteatzean, honen konponbiderako bide ezberdinen planteamendua egitean datza. Haurrek, orokorrean hitz eginez, arazo interpertsonalak konpontzeko estrategia gutxi izan ohi dute eta honek eramaten ditu konponbideak era agresiboan edo pasiboan aurrera eramatera. Honengatik bada, beharrezkoa da haiengan arazoaren konponbideentzako bide ezberdin eta anitzak pentsatu eta planifikatzea. Are eta konponbide gehiago bilatu eta pentsatu, geroz eta hobeto.

### *5.3. Ondorioak aurreikusi:*

Arazo interpertsonalen aurrean, norbanakoaren eta besteen ekintzek izan ditzaketen ondorioak aurreikusten datza eta hauek kontuan hartzea ekintzekin hasi aurretik. Arazoaren aurrean planteaturiko konponbideak gauzatu edo praktikara eraman aurretik, gertatuko denaren ondorio positibo zein negatiboetan pentsatu eta erreflexionatzean dute zerikusia trebetasun hauek. Ondorioz enpatia lantzea ere ezinbestekoa da kasu hauetan.

### *5.4. Soluzio bat aukeratu:*

Arazo interpertsonalen aurrean, planteaturiko soluzio guztietatik egokiena hautatzean datza. Hau egoki bideratzeko, planteaturiko soluzio bakoitzetik pro eta kontrak ikertu behar dira honako irizpideak kontuan hartzen direlarik: soluzio bide bakoitzeko egon daitezkeen ondorioak aurreikustea eta norbanakoan eta beteengan izan dezakeen efektua aurreikustea, bai epe motzean eta bai epe luzean.

Honengatik, hautapena zuzena, orekatua eta justua, efektiboa eta inplikatuengan sorraraziko dituen sentimenduak kontuan hartzen dituen izan beharrezkoa da.

### *5.5. Hautatutako soluzioa praktikan jarri:*

Arazoaren soluzioa praktikara eramateko pausuz pausu planifikatzeko beharrezko trebetasunak ditugu hemen; Zer egin behar den, nola, ze oztopoak egon daitezkeen helburua lortzeko, eta hauek nola ekidin daitezkeen.

Praktikara eraman eta gero, ikasleak ohitu behar dira lortutako erantzunak ebaluatzen, ea erantzun efektiboak lortu dituzten edo ez. Baizkoa lortzen bada, prozesu hau amaitutzat emango da, bestela, emaitzak ez badira efektiboak izan, aurretik planteatutako beste soluzio bat jarri beharko da praktikan lehenengoarekin egindako prozesu berbera erabiliz. Beste era bat izango litzateke, arazoaren konponbiderako berriro ere beste soluzio bide berriak bilatzea.

## **5.2. Entrenamendu Paketea;**

PEHIS programan, elkarrekintzak martxan jartzeko teknika ezberdinez osaturiko “Entrenamendu Pakete” bat erabiltzen da. Teknika hauek, trebetasunak bereganatzeko eragina, iraunkortasuna eta orokortzea eskaintzen du eta aplikapena era askotan egin edo planteatu daiteke, (tutoreak askatasuna du honen planteamendu eta praktikara eramatean):

Alde batetik tutoretzaren barne landu daiteke, denbora zehatz eta mugatu batean. Beste batetik tailer moduan landu daiteke, denbora mugatu batean hau ere, adibidez hiru-hilabete batean. Hirugarrenik, curriculumeko arlo bat izango balitz bezala ere landu daiteke, bere helburu, eduki eta ebaluazio irizpideekin, edota zeharka lantzeko gaia balitz bezala, hots, arlo guztietan zeharka landurikoa.

Ikerketa honetan, tutoretza saioen barne zentratuko da eta beraz, saio hauetan eman beharreko programazioaren pausuak honakoak izango lirateke orokorrean:

1. Hitzezko instrukzioa, Elkarrizketa eta Eztabaidatzea, irakaslearen partetik
2. Modelatzea. Irakaslearen eta ikasle kompetenteen aldetik helburu diren trebetasunetarako.
3. Saiakerak eta Praktika ikasleen aldetik. Helburu diren trebetasunetarako.
4. Praktikara eramatearen Ebaluazioa, Retroalimentacion o Feedback-a

(informatiboa edo moldagarria) eta Errefortzua (erantzun edo hobekuntzetarako).

Entrenamendurako metodo eta teknikak aplikatzeko momentuan, irakaskuntza prozedimentu espezifiko bat erabiltzen da, hau elementu ezberdinetan sailkaturikoa. Honela bada, gizarteratze trebetasunak lantzeko, gela osorako irakaskuntza sesioak honakoak izan beharko dira, irakaskuntza sekuentzia zehatzeko prozesu batean antolatua:

1. Aurreko sesioan bidalitako eta sesioen artean aurrera eramandako ariketen errebisioa.
2. Egun horretan landu beharreko trebetasunaren aurkezpena.
3. Trebetasun zehatz horretan, ikasleen aurretiko gaitasunen ebaluazioa  
.....
4. Irakasleak ikasleekin aurrera eraman beharreko hitzezko instrukzioa, Elkarrizketa eta Eztabaidatzea.
5. Irakasleak eta/edo helburu den trebetasunean kompetenteak diren ikasleek aurrera eraman beharreko Moldaketa.
6. Saiakerak eta Praktika ikasleen aldetik helburu den trebetasunerako.
7. Praktikara eramatearen Ebaluazioa, Feedback-a (informatiboa edo moldagarria) eta Errefortzua (erantzun edo hobekuntzetarako). Irakasle zein ikasleek batera aurrera eramana.
8. Etxerako lanen planteamendua.

Pauso hauek moldatuak izan daitezke, sesioa lantzen jarraitu beharra dagoen kasuan, trebetasun baten lanketa amaitutzat eman nahi ez bada.

Beraz, hurrengo sesioa jokaera edo trebetasun berrietan oinarritutako Moldaketaren pausoarekin hasi daiteke edo Praktika gehigarri batekin. Orokorrean aipatzearren, sesio bakoitzean Moldaketa sekuentzia asko egin ohi dira.

9. Hitezko instrukzioa, Modelatzea eta Praktika gehigarria (praktikara eramatea eta/edo hobekuntza beharrezkoa bada)
10. Aurreko sesioaren landutakoaren laburbilketa.
11. Etxerako lanen planteamendua.

Aurrera jarraitu aurretik, instrukzio prozesuaren sintesi bat honakoa dugu:

### 1. Hitzezko, elkarrizketarako eta eztabaidarako argibideak / instrukzioa:

Hezkuntza prozesuaren lehen osagaiak, trebetasun kontzeptuaren lorpena du helburu, mugatze eta espezifikazio bitartez erakutsiko dena, trebetasun honek haurren bizitzan izango duen garrantzia kontuan harturik. Beharrezkoa izango da hurrengo galderei erantzutea, landutako trebetasun bakoitzari lotura eginez: zer egin, non, noiz, zergatik, zertarako eta norekin.

### 2. Modelatzea:

Sozialki ikasle gaituek eta irakasleak, trebetasun ezberdinen adibideak modelatzen dituzte, beste ikasleek zuzenean ikusiz ikasiko dituztenak. Ahal izanez gero, ikasleek izandako kontaktu interpertsonal errealean adibideak modelatu behar dira, bai pareekin izandakoak, bai helduekin izandakoak.

### 3. Praktika

Lehenik eta behin, ikasi nahi den trebetasun-helburuaren inguruan eginiko elkarrizketa egin behar da, eta lorpen honetarako jarrera eredu ezberdinak ikusi. Ondoren, entseguak egitea eta praktikatzea beharrezkoa da, jarrera-errepertoria gehitu daitezten. Praktika hau, efektiboa izan dadin, bi era ezberdinetan egin beharra dago:

- Egoera simulatuetan, espezifikoki sortuak entsegurako eta praktikarako (*Role-playing* edo dramatizazioa)
- Egoera natural aproposak aprobetxatuz, espontaneoak eta egunerokoak direnak. (praktika aproposak)

### 4. Feedback-a eta errefortzua

*Role-playing* edo dramatizazioaren bidez jarreraren entsegua eta praktika bukatu eta gero, irakasleek edo ikaskideek informazioa eman beharko diote haurrari, nola egin duen adierazi eta errefortzua emateko.

Honetaz gain, *Role Playing* edo Dramatizaziorako gidoi ezberdinak



erabiltzea komenigarria da, ikasleei aurkeztu al zaizkien egoera ezberdinekin. (Ikusi Calatayud-2, 6.6, 1).

#### 5. Zereginak, etxerako lanak

Ikasleak, lantzen ari den trebetasunak praktikan jartzean datza, ikasgelako eta ikastetxeko testuingurutik at, irakaslearen argibideekin eta ondorengo gainbegiratzearekin.

Irakaskuntza praktikan jartzea errazteko, Monjasek Hezkuntza/irakaskuntza fitxak deituriko materiala eskaintzen du. Fitxa hauen helburua: irakasleak orientatu eta gidatzea, trebetasunak nola erakutsi jakin dezaten. 30 trebetasunetako bakoitzarentzat fitxa bat dago eskuragarri.

Instrukzio prozesua ikusi eta gero aipatzea, sesio bakoitza trebetasun bakarraren irakaskuntzan zentratu egon ohi den arren, bat baino gehiago elkarrekin landu daitezke. Jada landurik dauden beste batzuk ere landu daitezke errefortzu edo aurre-prestakuntza gisa. Askotan, sesio asko eta asko aurretikikasitako trebetasunen errebaso edo oroimenera planteaturik egon ohi dira, eta sesio asko helburu honetarako bakarrik programatzen dira.

Tutoretza jardunaren sesio hauek gainera formatu ezberdinetan aurrera eramateko malgutasunez prestatu daude, hots, talde handietan, ertainetan, txikietan edota banaka lantzeko. Azkenekoaren inguru, ikasle bakarrean oinarritutako irakaskuntza komenigarria da, honek gizarteratze defizita eta arazo larriak aurkezten dituenen. Adibidez, agresibitate maila altua aurkezten badu, edo uzurtasun maila altua. Hala ere, komenigarria da talde txikian landutakoarekin konbinatzea, ikasle honek irakaslearekin ikasitakoa praktikara eramateko aukera izan dezan.

Talde txikietan aurrera eramandako irakaskuntza bigarrenik, hiru edo lau ikasletako taldeak zehazki, hutsune sozial handiak aurkezten dituzten haurrekin lantzea komenigarria da. Talde hauetan, jada aipaturikoak eta konpetentzia sozial egokiak barneratu dituzten haurrek ere osatu behar dute, azken hauen partetik gizarteratze elkarrekintza positibo eta atseginak ziurtatu dezaten.

Beste alde batetik, talde ertainak, hamar ikasleez osaturikoa zehazki,

Heziketa bereziko ikasgeletan lantzeko aproposa da edota errekurtsio askoren aukera dagoenean eta gelako ikasleen taldea azpitaldeetan bereizi daitekeenean.

Amaitzeko hogeik ikasleko talde handietan adibidez lantzekotan, komenigarria izango litzateke bi irakasleen presentzia (tutorea eta laguntzako irakaslea) batez ere praktikako unean, ikasle guztiek egoki entseatzen duten behatzeko eta kontrolatzeko. Gela taldetxoetan zatitu beharko litzateke, demagun sei edo hamar ikaslez osaturikoak segun eta ze errekurtsio dituen ikasgela bakoitzak, taldeen artean oreka egonez (sexua, ikasleen estatus *soziometriko* eta gizarte trebetasunen mailaren arabera). Une honetan, tutoreak ariketa orokorra aurrera eramane dezake, laguntzako irakasleak haur espezifikoekin egoten den bitartean edo bi irakasleek batera eramane dezakete ariketa orokorra eredu ezberdinak erakusten dituzte landu beharreko trebetasunerako rol ezberdinak erabiliz.

Hori bai, askotan formatu nahasketa erabiltzen da. Adibidez, talde handiak entrenamendua egin eta gero, talde ertainean ikaskuntzaren errefortzua egin daiteke eta amaitzeko praktikan jarri daiteke (laguntza gelan) berriro ere gela osoarekin edo beste testuinguru batzuetan; parkean, errekreoan, e.a. Beraz kasu honetan komenigarria da talde handian Instrukzioa eta Moldaketa egitea eta gero entseatu eta praktika prozesuetarako talde ertainera pasatzea.

### **5.3. Entrenamendurako irakaskuntza fitxak:**

Aurreko atalean egin den datuen analisiarekin ikusi diren gabeziak galdera hauetan izan dira: 1, 2, 5, 10, 11, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 31, 39 eta 40. Hauek alor orokor eta azpi-alor hauetan sailkatzen dira:

#### **2. Alorra: Lagunak egiteko trebetasunak:**

##### **2.1. Azpi-alorra: Besteak indartu eta adoretu.**

- (1) Besteak goraipamenak egitea eta gauza positiboak esatea.
- (2) Besteak alabantzak eta goraipamenak egitean era

egokian erantzutea.

2.3. *Azpi-alorra: Besteekin batera jokoetan sartzea.*

- (5) Beste ikaskideek ariketak edo jokoak .

2.5. *Azpi-alorra: Kooperazioa eta elkarbanatzea.*

- (10) Norbanakoaren gauzak besteekin elkarbanatzea.

3. Alorra: Elkarrizketarako trebetasunak:

3.1. *Azpi-alorra: Elkarrizketak hasi.*

- (11) Besteekin elkarrizketak hasia.

3.2. *Azpi-alorra: Elkarrizketak mantendu.*

- (13) Elkarrizketetan esandakoa entzutea, horri erantzutea eta norbanakoaren ustean eta sentimenduak azaltzea.
- (14) Besteekin elkarrizketetan aktiboki parte hartzea (gaiaz aldatu, e.a.).

3.3. *Azpi-alorra: Elkarrizketak bukatu.*

- (15) Elkarrizketak era egokian amaitzea.
- (16) Norbaitek elkarrizketa bat amaitutzat ematen badu egoki erantzutea.

3.4. *Azpi-alorra: Beste batzuen elkarrizketetan sartu.*

- (17) Norbaitek talde bateko elkarrizketan sartu nahi badu, egoki erantzutea.
- (18) Beste ikaskideek mantendutako elkarrizketetan sartzea.

3.5. *Azpi-alorra: Taldeko elkarrizketak.*

- (20) Taldeko elkarrizketetan, txandak errespetatuz

beharrezkoa denean era egokian parte hartzea.

#### 4. Alorra: Sentimendu, emozio eta iritziekin loturiko trebetasunak.

##### 4.1. Azpi-alorra: Norberaren baieztapen positiboa.

- (21) Bere buruari gauza positiboak esatea.
- (22) Besteen aurrean, haiei buruz gauza positiboak adieraztea.

##### 4.2. Azpi-alorra: Emozioak azaleratu.

- (23) Besteen aurrean emozio eta sentipen atsegin/positiboak (poza, zoriontasuna, e.a.) era egokian erantzutea.
- (24) Besteen aurrean emozio eta sentipen ezatsegin/negatiboak (haserrea, tritura, porrota), era egokian azaleratzea.

##### 4.3. Azpi-alorra: Emozioak jaso.

- (25) Besteen sentipen eta emozio positibo eta atseginei (zoriontasuna, e.a.) egoki erantzutea.

#### 5. Alorra: Norberaren arazo interpertsonalak konpontzeko trebetasunak.

##### 5.1. Azpi-alorra: Norberaren arazoak identifikatzea.

- (31) Besteekin erlazionatzean, norberari aurkezturiko arazoak identifikatzea.

##### 5.5. Azpi-alorra: Soluzioa praktikan jarri:

- (39) Besteekin arazoetan, hautatutako soluzioa praktikan jartzeko, jada izandako ondorioen inguru hausnartzea.
- (40) Besteekin arazoak izatean, aldez aurretik praktikan jartzeko irtenbidea planifikatzea.

Honela beraz, galdera bakoitzak gizarteratze trebetasun bati erantzuten dio eta azpi-alor bakoitzaren barnean hauetako bi agertzen dira. Hauek oso konektatuak daude beren artean, edo lotura estua dutela esan genezake. Honela bada, aurretik aipatutako azpi-alor bakoitzerako PEHIS programak eskaintzen dituen irakaskuntza-fitxa bat aurkeztuko da. Hauek, gizarteratze trebetasunak ikasgelan lantzeko eta praktikara eramateko, informazioz, adibideez eta orientazioez osatuak daude. Tutore-irakasleak eta ikasleek egin beharrekoa zehazten da eta beti ere, gelako egoerak ezberdinak direnez, fitxa bakoitza moldatu behar da gelako egoera bakoitzara.

Tutoreak trebetasun zehatz bat irakasi aurretik garrantzitsua da honakoa betetzea:

- Fitxetako edukiak mamituak izatea.
- Landu behar dituen aspektuak zehaztea.
- Aurkezpena eta materiala aldeztu aurretik prestatzea.
- Bere ikasgela konkretua kontuan izanda (testuingurua, aniztasuna, e.a.), adibideak aurreikusi eta prestatu.

Gaia jorratzerakoan, lehenengo zikloetan (1go, 2. eta hirugarren mailan adibidez), fitxetako alderdi partzialak besterik landu ahalko dira. Ikasleak handiagoak diren heinean ordea, funtzionamendu interpertsonal konplexuagorako alderdi zailagoak eta erantsi beharko dira.

Honez gain, praktikarako orduan, aurretik azaldu den entrenamendu paketea kontuan izan beharko da etengabe. Honengatik beraz, fitxa bakoitzaren planteamendua entrenamendurako paketean aurkeztu diren pausoen arabera antolaturik dago, hau da: *Hitzezko instrukzioa; Elkarrizketa eta Eztabaidatzea; Moldelatzea; Praktika; Feedback edo Dramatizazioa eta Errefortzua; Etxerako lanak.*

Fitxa honela antolaturik dago beraz:

A- Landu beharreko trebetasunaren informazioa: Ze alorrari dagokion, nola deitzen zaion trebetasun horri eta bakoitzaren helburua.

B- Entrenamendua:

1. Hitzeko instrukzioa, Elkarrizketa eta Eztabaida:

Pauso hau bi ataletan bereizten da. Lehenengoa “Informazio kontzeptuala” eta bigarrena “Trebetasunaren osagarriak eta burubiderako pauso zehatzak”.

Hemen, trebetasunaren inguruko informazio orokorra ematen da eta tutoreak hausnarketarako elkarrizketa nola hasi behar duen zehazten da, ondoren aplikaziorako argibide eta pauso ezberdinen adibideak zehaztuz.

2. Modelatzea: Tutorearen eta ikasle batzuen artean egoera zehatz batzuetan trebetasunen aplikazioaren ereduak egiten dute. Honetarako pausu eta adibideak ematen dira.

3. Praktika:

Dramatizazioaren bidez ikasleen artean entseatuko dute ikasitako trebetasuna. Honetarako tutorearentzat zenbait adibide aipatzen zaizkio, egunerokotasunean topatutako edozer gertaerekin erlazionatzea garrantzitsua dela gogoraraziz

4. *Feedback*-a edo Errefortzua:

Ikasleek entseatzen duten bitartean irakasleak hauei eman beharreko errefortzuen adibideak ematen dira.

5. Etxerako lanak:

Landutakoa beste testuinguru batzuetan aplikatzeko iradokizunak ematen dira.

C- Behaketa:

Landutako trebetasunak ze beste trebetasunekin elkar-konektatzen diren argitzen da.

Entrenamendua lantzeko eskaini beharreko sesioak, tutorearen esku geratzen dira. Eranskinetan ikerketa honetan gabeziak sumatu diren azpi-alderdi batzuetarako fitxa batzuk eskaini dira eredu gisa. Bigarren alderdi orokorreko sei gizarteratze trebetasun agertzen dira hauetan, bi azpi-alor bakoitzeko hain zuzen ere

1. FITXA: (*Ikus eranskinak II*)

– 2. Alor orokorra: “Lagunak egiteko trebetasunak”.

- Azpi-alorra: “Besteak indartu eta adoretu”

2. FITXA: (*Ikus eranskinak III*)

- 2. Alor orokorra: “Lagunak egiteko trebetasunak”.

- Azpi alorra: “Gizarteratze hastapenak”.

3. FITXA: (*Ikus eranskinak IV*)

- 2. Alor orokorra: “Lagunak egiteko trebetasunak”.

- Azpi-alorra: “Kooperazioa eta elkarbanatzea”.

# ERANSKINAK

## Eranskinak I

### GIZARTE TREBETASUNEN LANKETA LEHEN HEZKUNTZAN IRAKASLEENTZAKO GALDETEGIA

Galdetegi hau Lehen Hezkuntzako etapako tutoreek era **anonimoan** betetzekoa da. Honen bidez jasoko diren datuen eta informazioaren trataera eta emaitzak, modu globalean aztertuko dira, ikastetxeen artean bereizketarik egin gabe.

Galdetegian aurkituko dituzun esaldiek gehienbat **tutoretza jardunarekin** zerikusia dute eta Gizarte Trebetasunen oinarrizko alderdien lanketa (**irakaskuntza**) baloratzeko diseinatuta daude.

Data: .....

Ikasmaila: .....

- *Faborez, irakurri arretaz enuntziatu bakoitza. Borobildu gelan atal hauek lantzeko ikasturtean izan ohi duzun maiztasuna, honako irizpideen arabera:*

- |          |                                 |
|----------|---------------------------------|
| <b>1</b> | Ez dut <b>inoiz</b> lantzen.    |
| <b>2</b> | Ez dut <b>ia inoiz</b> lantzen. |
| <b>3</b> | <b>Askotan</b> lantzen dut      |
| <b>4</b> | <b>la beti</b> lantzen dut      |
| <b>5</b> | <b>Beti</b> lantzen dut.        |

Alorrak		Itemak	Kalifikazioa
Besteak indartu eta adoretu	1. Besteak goraipamenak egiten eta gauza positiboak esaten lantzen dut.	1 2 3 4 5	
	2. Besteak alabantzak eta goraipamenak egitean era egokian erantzuten lantzen dut.	1 2 3 4 5	
Gizarteratze hastapenak	3. Beste ikaskide batek beste ariketa edo jolas bat egitera gonbidatzean egoki erantzuten lantzen dut.	1 2 3 4 5	
	4. Jokoak eta ariketak besteekin batera ekiten edo hasten lantzen dut.	1 2 3 4 5	



<b>LAGUNAK EGITEKO TREBETASUNAK</b>	<b>Besteekin batera jokoetan sartu</b>	5. Beste ikaskideek ariketak edo jokoak egiten daudenean, hauekin biltzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
		6. Norbaitek joko edo ariketetan parte hartu nahi badu, egoki erantzuten lantzen dut.	1 2 3 4 5
	<b>Laguntza</b>	7. Egoera ezberdinetan, ikaskideak laguntzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
		8. Ikasleek beharra dutenean besteei laguntza eskatzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
	<b>Kooperazio eta elkarbanatzea</b>	9. Beste ikasleekin joko edo ariketetan parte hartzen eta kooperatzen (animatu, proposamenak egin, e.a.) lantzen dut.	1 2 3 4 5
		10. Haien gauzak besteekin elkarbanatzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
<b>ELKARRIZKETARAKO TREBETASUNAK</b>	<b>Elkarrizketak hasi</b>	11. Besteekin elkarrizketak hasten lantzen dut.	1 2 3 4 5
		12. Norbaitek ikasle batekin elkarrizketa hasi nahi badu egoki erantzuten lantzen dut.	1 2 3 4 5
	<b>Elkarrizketak mantendu</b>	13. Elkarrizketetan, esandakoa entzun, horri erantzun eta haien usteak eta sentimenduak azaltzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
		14. Besteekin elkarrizketetan aktiboki parte hartzen (gaiaz aldatu, e.a.) lantzen dut.	1 2 3 4 5
	<b>Elkarrizketak bukatu</b>	15. Elkarrizketak era egokian amaitzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
		16. Norbaitek elkarrizketa bat amaitutzat ematen badu, egoki erantzuten lantzen dut.	1 2 3 4 5
	<b>Beste batzuen elkarrizketetan sartu</b>	17. Norbaitek talde bateko elkarrizketan sartu nahi badu, egoki erantzuten lantzen dut.	1 2 3 4 5
		18. Beste ikaskideek mantendutako elkarrizketetan sartzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
	<b>Taldeko elkarrizketak</b>	19. Elkarrizketetan arauak errespetatuz parte hartzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
		20. Taldeko elkarrizketetan, txandak errespetatuz beharrezkoa denean era egokian parte hartzen lantzen dut.	1 2 3 4 5
	<b>Norberaren baieztapen positiboa</b>	21. Nork bere buruari gauza positiboak esaten lantzen dut.	1 2 3 4 5
		22. Besteen aurrean, haiei buruz gauza positiboak adierazten lantzen dut.	1 2 3 4 5

<b>SENTIMENDU, EMOZIO ETA IRITZIEKIN LOTURIKO TREBETASUNAK</b>	<b>Emozioak azaleratu</b>	23. Besteen aurrean emozio eta sentipen atsegin/positiboak (poza,zoriontasuna,e.a.), era egokian azaleratzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
		24. Besteen aurrean emozio eta sentipen ezatsegin/negatiboak (haserrea,tristura,porrota), era egokian azaleratzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
	<b>Emozioak jaso</b>	25. Besteen sentipen eta emozio positibo eta atseginei (zoriontasuna, e.a.) egoki erantzuten lantzen dut.	1	2	3	4	5
		26. Besteen sentipen eta emozio negatibo / ezatseginen aurrean (kritikak,haserreak,tristura), era egokian erantzuten lantzen dut.	1	2	3	4	5
	<b>Norberaren eskubideak defendatu</b>	27. Besteen aurrean bere eskubideak defendatu eta erreklamatzeko lantzen dut.	1	2	3	4	5
		28. Besteek, haien eskubideak defendatzean, jarrera egokia adierazten (enpatia, ondorioetatik habiatuz jokatu), lantzen dut.	1	2	3	4	5
<b>Norberaren ideiak/iritziak defendatu</b>	29. Nork bere iritziak era egokian aurkeztu eta defendatzen lantzen dut.	1	2	3	4	5	
	30. Besteekiko adostasun eza erakusten lantzen dut.	1	2	3	4	5	
<b>NORBERAREN ARAZO INTERPERTSONALAK KONPONTZEKO TREBETASUNAK</b>	<b>Norberaren arazoak identifikatu</b>	31. Besteekin erlazionatzean, norberari aurkezturiko arazoak identifikatzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
		32. Besteekin arazoak sortzean, honen kausak identifikatzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
	<b>Konponbideak bilatu</b>	33. Besteekin arazoak sortzean, konponbideak bilatzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
		34. Besteekin arazoak izatean, enpatia erabiltzen eta arazoari aurre egiteko bideak adierazten lantzen dut.	1	2	3	4	5
	<b>Ondorioak aurreikusi</b>	35. Besteekin arazoak izatean, beren ekintzen ondorio posibleak aurreikusten edo hauetara aurreratzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
		36. Besteekin arazoak izatean, hauen jokaeraren ondorioak aurreikusten lantzen dut.	1	2	3	4	5
	<b>Soluzio bat aukeratu</b>	37. Besteekin sorturiko arazoei aurre egiteko, konponbide ezberdinak ikertzen eta egokiena hautatzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
		38. Arazoan inplikaturiko ikasleentzat konponbiderako hautabide efektibo eta bidezkoak aukeratzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
	<b>Soluzioa praktikan jarri</b>	39. Besteekin arazoetan, hautatutako soluzioa praktikan jartzeko, jada izandako ondorioen inguru hausnartzen lantzen dut.	1	2	3	4	5
		40. Besteekin arazoak izatean, aldeztu aurretik praktikan jartzeko irtenbidea planifikatzen lantzen dut.	1	2	3	4	5

- *Gizarte trebetasunak lantzeko, metodo espezifikorik erabiltzen al duzu?*

*Bai / Ez*

- Baiezkoan, zein edo zeintzuk?

---

---

---

---

## Eranskinak II

FITXA 1	
ALORRA	2. Lagunak egiteko trebetasunak.
TREBETASUNA	Besteak indartu eta adoretu.
HELBURUA	Ikasleak goraipamenak eta alabantzak egitea eta hauei egoki erantzutea.
<p>ENTRENAMENDUA:</p> <p><i>1. Hitzezko instrukzioa, Elkarrizketa eta Eztabaidatzea:</i></p> <p>1.1. Informazio kontzeptuala:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Trebetasunaren zehazte eta mugarritzea: Besteak indartzea, beste pertsoneri atsegina edo positiboa den zerbait esatea edo egitea inplikatzeko du, hau da, beste batek duen zerbait edo edo pertsona horrek esan edo egindako zerbait gustatu zaizula adieraztea. Bere itxuraren inguruko zerbait izan daiteke, eta baita ere, egin, esan edo lortu duen zerbaiten inguruan. Besteak indartzen ari gara, konplimenduak, goraipamenak edo komentario positiboak egiten ditugunean. Zoriontzearan, hitz goxoak adieraztean e.a.<p>Irakasleak elkarrizketa hasten du ikasleekin: <i>“Nork eman dezake ikaskide batenganako goraipamen bat emateko adibideren bat?, Zergatik egiten diozu konplimendu hori? Nork ikusi du gaur gelako norbait ikaskideren bati konplimenduren bat ematen? Zer esan dio? Zer egin du konplimendua jaso duenak?, Nola jaso ditu hitz goxo horiek? Nork behatu du horrelako kasuren bat etxean? Zer gertatu da? Nola uste duzue sentitu dela alabantza jaso duen pertsona hori?”</i></p><ul style="list-style-type: none"><li>○ Ikasle goarentzat garrantzia: Oso garrantzitsua da besteei alabantzak edo goraipamenak maiztasunarekin egiten jakitea, besteak gustura sentitzen baitira hitz goxoak esaten dizkieten pertsonekin eta honek eragiten duelako pertsona horrekin gehiagotan egoteko nahia. Trebetasun hau garaturik duten haurrek lagun asko izan ohi dituzte eta besteak hauekin egoteko gogoekin egon ohi dira. Haurrek besteei ez badiete goraipamenik egiten eta batez ere hitz negatiboak besterik esaten badizkiete, ikaskideek ez dute haur hauekin egon nahiko, hauei uko eginez eta ekidinez.<p><i>“Miren, nola sentitzen zara besteek zurea den zerbaiti goraipamenak egiterakoan?. Eneko, zer sentitzen duzu zuk egindako lana bikain dagoela esaten dizutenean? Gustuko al duzu zuri buruzko gauza positiboak entzutea? Uste al duzu besteei gauza positiboak esatea garrantzitsua dela? Zergatik? Zer gertatuko litzateke besteei beti gauza negatiboak eta ezatseginak esaten ibiliko bazina?. Nola sentitzen zara besteen inguruan gauza positiboak adieraztean? Nori ematen dio lotsa besteei goraipamenak egitea? Zergatik?.”</i></p><ul style="list-style-type: none"><li>○ Aplikazioa:</li></ul></li></ul></li></ul>	

Irakasleak besteei egindako goraiipamen eta hitz goxoen inguruko elkarrizketa maneiatzen du, trebetasunaren inguruko egoera zehatzak abiapuntu bezala erabiliz.

“Noiz da komenigarria ikaskide bati goraiipamenak egitea? Eta guretzat ezezaguna den pertsona bati? Eztabaida baten dagoen momentuan egokia al da? Egokia al da alabantzak egitea horiek egitea sentitzen ez badugu? Zergatik?”

Irakasleak bermatu behar du ikasleek haien buruarekin egiazaleak eta zintzoak izan behar direla ulertzen, eta besteenganako hitz goxoak ez direla ahohandiak izan behar. Demagun haur batek ez duela gustuko bere ikaskideak daraman arropa berria. Haur honek gustukoa duela adierazten badu, zer gertatuko da?

## 1.2. Trebetasunaren osagarriak eta burubiderako pauso zehatzak

Besteak indartzeko, honakoa beharrezkoa da:

- Besteak irribarretsu begiratzea.
- Esaldi edo komentario positibo zehatzak adieraztea. “Zure boligrafoa izugarri polita da; Ze ondo egin duzun matematikako lana.”
- Esandakoa keinu eta aurpegi espresio egokiarekin esatea, hau da, esandakoa gorputz espresioarekin bat egotea, beste pertsonari gustatuko zaiona kontuan hartuz (bostekoa eman, begiarekin kliska egin, e.a.).
- Zuzena eta zintzoa izatea. Norbanakoak pentsatzen eta sentitzen duena adierazi behar du beti.

## 2. Moldelatzea:

Irakasleak eta ikasleek goraiipamen, hitz goxoen eta konplimenduen adibideekin ereduak adierazten dituzte.

Irakasleak buruan duena hitzetan jartzen du, ekintza aurrera eramaten duen heinean.: *“Amaiak gaur beste egunekin konparatuz askoz hobeto ari da lanean, gaur bere portaera izugarri gustatzen ari zaidala esango diot jakin dezan; berarengana hurbilduko naiz, irribarretsu begiratuko dut eta esango diot: Amaia, ze jarrera ona duzun gaur! Neska bikaina zara!”*

Irakasleak ikasle bakoitzari gauza positibo bat adieraziko dio, ikasleek goraiipamenak egiteko era ezberdinak ikusi ditzaten: esaldi ezberdinak, keinu ezberdinak, ahotsaren intonazio ezberdinak eta konplimenduak adierazteko arrazoi ezberdinak.

Honez gain, trebetasuna barneraturik duten haurrek, konplimenduak egiteko era ezberdinak adieraziko dizkiete besteei; adibidez Julenek Aneri esaten dio: “Ze txandal polita! Kolore hori oso ondo geratzen zaizu!”. Edo Iñakik Xabierri: “Izugarrizko lan ona egin duzu; oso argia zara!”.

- Modelatzerako iradokizunak:

-Nekanez ilea moztu du eta oso polita dago. Oso ederra dagoela adierazi nahi diozu, berak jakin dezan.

-Ikaskide batek zer moduz zauden galdetzen dizu, hiru egunetan gaixo egon zarelako eta gelara joan ez zarelako.

-Aitziberrek gelako lan bat bukatzen lagundu dizu. Positiboa eta atsegina den zerbait esan nahi diozu.

### 3. Praktika:

#### 3.1. Dramatizazioa:

Oraingoan denek batera praktikan jarriko dute gauza atseginak elkarri esatearena. Ikasleak binaka kokatuz, bakoitzak bestearekiko positiboa den zerbait baitan mantenduko du. Pentsatzen dutenari buruz zintzoak izateko gogoratuko zaie baita aurretik landutako pausoak ere, besteak indartzeko beharrezkoak direnak (begirada, e.a.).

Hau honela, ikasleek elkarri gauza positiboak esango dizkiote txandak errespetatuz, irakasleak ekintza hau behatzen duen bitartean, gero aspektu zehatzen bat ozenki adieraziz: "Adi momentu batez. Begira zer esaten adi dion Amaiurrek Ametzi", denak adi geratuko dira zain, orduan irakasleak Amaiurrek esandakoari goraipamenak egiten dizkio, errefortzua emanez.

Honen ostean, irakasleak gehiagotan praktikatuko du ariketa. Oraingoan borobilean jarriko dira eta ikasle bakoitzak bere eskuinean dagoenarekin ibiliko da goraipamenak eta hitz goxoak esaten eta entzuten. Bukatzerakoan, lekuz aldatuko dira berdinarekin jarraitzeko.

#### 3.2. Praktika aproposa:

Egunerokotasunari begira, gela barnean egoera ezberdinak azaleratu ohi dira non trebetasun hauek praktikan jartzea aproposa den. Irakaslea honetaz baliatu behar da ikasleek ikasitako trebetasunak praktikan jar ditzaten. Honela, positiboak izaten eta errefortzuak ematen ohitura hartuko dute besteekiko erlazioetan.

### 4. Feedback eta Errefortzua:

Ikasleek trebetasunak praktikatzeko ari dituzten bitartean, irakasleak orientatu behar ditu, beste motatako konplimentuetarako pistak emanez, adibidez: zer uste duzu Nerearen gaurko portaerari buruz?, Ondo? Esaiozu!" Honela irakasleak haurrek esandakoak gidatzen ditu nolabait, hauek kutsu positibo eta atsegina izan dezaten.

### 5. Etxerako lanak

*Ikasleek trebetasuna bereganaturik dutelarik, beste momentu eta egoera ezberdinetan, ikaskide edo beste pertsonekin praktikan jartzeko eskatu behar die.*

- *Ariketetarako iradokizunak:*
  - Ariketaren batean ikaskideen esfortzuaren inguruan hitz positiboak esatea.
  - Ikasleen familiako partaideei gauza positiboak esatea, bakoitzari buruz gustukoa duten zerbaitetan.
  - Besteei alabantzak zenbatetan egiten duten behatzea.
  - Ikaskideak zoriontzea lortu duten zerbaiten inguruan; adibidez, sari bat lortzean, arreba bat izan behar dutenean, e.a.

-Besteei hitz goxoak adieraztean, haien erantzunak behatzea.

**BEHAKETAK:**

1. Erlazionatutako trebetasunak:

- Helduarentzako errefortzua:

Alabantzak eta konplimenduak jasotzea, emozioak jasotzeko trebetasunen  
11. fitxan lantzen bada ere, honetan zeharka ere agertzen da.

### Eranskinak III

<b>FITXA 2:</b>	
ALORRA	2. Lagunak egiteko trebetasunak.
TREBETASUNA	Gizarteratze hastapenak
HELBURUA	Joko, ariketa edo elkarrizketetarako gizarte interakzioak hastea.
<b>ENTRENAMENDUA:</b>	
<i>1. Hitzezko instrukzioa, Elkarrizketa eta Eztabaidatzea:</i>	
1.1. Informazio kontzeptuala:	
○ Trebetasunaren zehazte eta mugarritzea:	
<p>Gizarte interakzioak hasteak, beste pertsonekin erlazionatzea inplikatzeko du. Norbaitekin topo egitea eta jolastea, hitz egitea edo ariketaren bat elkarrekin gauzatzeko eskatzea.</p> <p><i>“Amaia, zer ulertzen duzu zuk norbaitekin erlazionatzen hastearekin? Noiz egin duzu zuk beste ikasle batekin erlazionatzeko hastapenen bat? Zer egin zenuen? Noiz egin du beste ikaskideren batek? Zer gertatu zen?”</i></p>	
○ Ikaslegoarentzat garrantzia:	
<p>Trebetasun hau garrantzitsua da, besteekin erlazionatzeko, jendea ezagutzeko eta lagunak egiteko premiazkoa delako. Haur batek kontaktuak egiten, erlazioak hasten baldin badakizki, besteekin aspertu gabe, jolastu eta haiengandik gauzak ikasi ahal izango ditu.</p> <p><i>“Eneko, zergatik uste duzu garrantzitsua dela beste pertsona batekin erlazioa hasten jakitea? Eta zuretzat Ane? Nola sentitzen zara beste haur batekin kontaktua hasten duzunean? Eta nola uste duzu beste haurra sentituko dela? Zer gertatuko da beste haurrekin kontaktua hasten jakiten ez badugu? Eta bestea gaizki hasten bada? Zer gehiago gerta liteke?”</i></p>	
○ Aplikazioa:	
<p>Trebetasun honen erabilerarako, irakasleak ikasleei lagundu behar die egoera ezberdinetan eman daitezkeen adibideak jartzeko: atsedendietan aspertuta daudenean, ikaskide batekin zerbaiten inguruan hitz egin nahi denean, beste ikaskide batek nirekin jolastea nahi dutenean, e.a. <i>“Ze egoera gehiago eman daitezke kasu hauetan?”</i></p> <p>Ikasleek adibideak ematen jarraituko dute baina trebetasun hau erabiltzea egokia ez den egoeretan: norbanakoa bakarrik gustura dabilenean eta inorekin erlazionatu nahi ez duenean, egoera ezezagun baten aurrean edo heldu arrotzen aurrean.</p>	
1.2. Trebetasunaren osagarriak eta burubiderako pauso zehatzak	



Besteekin erlazioak hasteko honakoa egin behar da:

- Hitz egin, jolasu edo egon nahi duen haurra bilatu eta/edo erabaki.
- Momentu eta leku egokia hautatu.
- Beste pertsonarengana irribarretsu hurbildu.

-Zerbait egin edo esan, bestearen erantzuna positiboa eta atsegina izateko. Adibidez:

“Kaixo! Ni ... deitzen naiz” eta elkarrizketan sartzeko beste pertsonaren informazioa eskatzea, galderen bidez *“Nola deitzen zara? Non bizi zara? Zenbat urte dituzt? Etxera al zoaz? Berria al zara? Ze gelan zaude? Nongoa zara? ...”* eta gonbidapen zehatz bat egitea *“Nirekin jolastu nahi al duzu? Nire liburu berria ikusi nahi al duzu?...”*

-Jada interakzioa hasi delarik, egoki erantzun behar da, elkarrizketa mantentzea garrantzitsua da, partaide guztientzako atsegina izateko.

-Beste pertsonak erantzuten ez badu edo haurra errefusatzen badu, eta jolastu nahi ez badu, hona hemen erabilgarriak izan daitezkeen irtenbide batzuk: errepikatu, taktikaz aldatu, ezberdina den zerbaitetan ibiltzea eskatu, beste pertsona bat bilatu.

## 2. Moldelatzea:

Irakasle eta ikasleek eredu ezberdinak ematen dituzte trebetasuna lantzeko. *“Jostaldi ordua da eta patioan gaude. Aspertuta nago eta zerbait egin nahi dut. Amaia ikusten dut hemendik lurtean eserita. Badakit berarengana hurbildu beharko naizela agurtzeko eta nirekin jolastea eskatuko diot. Ondo egiten saiatuko naiz! Berarengana hurbiltzean esango diot, 'Kaixo Amaia!, Zer ari zara egiten?' Erantzuten didanean esango diot 'Baloiarekin jolastu nahi al duzu?' . Amaiak baietz esango dit, lurretik altxatuz eta jolasean hasiko gara. Jolasak irauten duen bitartean, berarekin hizketan arituko naiz irribarretsu eta esaldi positiboren bat esango diot 'Ze gustura ari garen!'. Pozik nago dena ondo egin dudalako eta atsedenaldira atsegina izan dudalako.”*

Irakasleak egoera ezberdinetako gertaeren ereduak ematen ditu aurretik aplikazioan aipatutako pausoak jarraituz. Honela irakasleak trebetasuna barneratua duten ikasleekin ereduak aurkeztu ditzakete, adibidez:

- Norbanakoari buruzko informazioa ematea eta besteei haiena eskatzea. (*Ni... kalean bizi naiz eta zu?*)
- Egoerari buruzko komentarioak egitea. (*Ze nolako beroa!*)
- Besteak egiten ari duenari buruz galderaren bat edo behaketaren bat egitea. (*Zenbat piezatako puzzlea ari zara egiten?*)
- Bestearen inguruko (jarrera edo fisikoa) komentarioak egitea. (*Ze praka politikak!*)
- Zerbait eskaini (*Txikle bat nahi al duzu?*)
- Eskaera zehatz bat formulatzea. (*Lagunduko nauzu? Gero pilotarekin jolastera etorriko zara?*)
- Jolas edo ariketa bat proposatzea edo antolatzea. (*Pilotarekin jolastuko gara? Zu hor jarri eta ni..*)
- Laguntza, iritzia, informazioa edo aholkuak eskatzea (*Eneko, zer iruditzen zaizu egiten ari naizen marrazkia? Nirekin jarraitu nahi al duzu?*)

Irakasleak galdetuko du zer gehiago egin daitekeen erlazio bat hasterako orduan, nola egingo luketen galdetuz eta besteen aurrean eredu eginez.

- Modelatzerako iradokizunak:
  - Ikaskide berri bat dago gelan eta berarekin hitz egin nahiko zenuke.
  - Garrantzia duen zerbait gertatu zaizu eta norbaiti kontatu nahi diozu.
  - Eneko, Aneren ondoan eseri da autobusean eta inauterietako jaien inguruan hitz egin nahi du berarekin.

### 3. *Praktika:*

#### 3.1. Dramatizazioa:

Erlazio interpersonal bat hastea praktikan jartzeko, bi taldetan banatuko dira ikasleak. Errekreoan daudela imajinatu behar dute eta talde batek bestean dauden partaideak ez ditu ezagutuko, eta alderantziz. Honela bada, talde batekoak bestera joango dira eta bertako partaide batekin erlazioa hasten ibiliko dira. Hau, aurretik aipatutako pausoetan oinarritu beharko da (pertsonek bat hautatu, e.a.).

Praktika gauzatzen ari den bitartean, irakaslea begirale moduan ibiliko da, ikasleei errefortzuak emanez, trebetasuna garatzeko adibide gehiago emanez, laguntza emanez e.a.

#### 3.2. Praktika aproposa:

Irakasleak, egunerokotasunean oinarritutako gertaerez baliatzen da trebetasuna praktikan jarri ahal izateko, adibidez talde lanak egiteko eskatzean. Ikaskide bakoitzak bikote bat aurkitu beharko du.

### 4. *Feedback eta Errefortzua:*

Praktika gauzatzen ari den bitartean, irakasleak behaketa egiten du eta ondoren landutakoaren deskripzioa eginez, errefortzua ematen die ikasleei: jokaera egokien inguruan eta moldatzeko premia dutenen inguruan, honela hurrengorako aholkuak emanez. *“Amaia, bikain! Erlazioa oso era egokian hasi duzu Mikelekin, zorionak!”*

### 5. *Etixerako lanak*

*Ikasleek ikasitakoa beste egoera eta testuinguruetan praktikatzeko eskatzen zaie.*

- *Ariketetarako* iradokizunak:
  - Gelan, ariketa librea eskaintzen zaien momentuan, ikaskide batekin hitz egitea.
  - Jostaldian, beste geletako ikasleekin jokoak edo elkarrizketak hastea.
  - Ikasleek beren etxebizitzatik hurbil bizi diren hurrekin kontaktuan ibiltzea, etxerako bidean elkartzen diren hurrekin, e.a.
  - Asteburuan, adin bereko bi ikasleekin gutxienez erlazio hastapenak egitea.

**BEHAKETAK:**

**1. Erlazionatutako trebetasunak:**

- Elkarrizketak hasia.

Erlazio gutxi dituzten haurrentzat, besteekin gutxi elkar harremanatzen direnentzat edota hastapenerako maiztasun eskasa dutenentzat oso garrantzitsuak dira fitxa honetan lantzen diren trebetasunak.

## Eranskinak IV:

<b>FITXA 3:</b>	
ALORRA	2. Lagunak egiteko trebetasunak.
TREBETASUNA	Kooperazioa eta elkarbanatzea.
HELBURUA	Besteekiko erlazioetan norbanakoak hauekin kooperatzea eta bereak diren gauzak elkarbanatzea.
<p>ENTRENAMENDUA:</p> <p><i>1. Hitzezko instrukzioa, Elkarrizketa eta Eztabaidatzea:</i></p> <p>1.1. Informazio kontzeptuala:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Trebetasunaren zehazte eta mugarritzea:</li></ul> <p>Kooperazioak exijitzen du talde ekintza batean jokaeren arteko elkarrekikotasuna (hitzezkoak edo motoreak), kontrolaren txandakatzea (jarduera nork zuzentzen duen) eta jarduera aurrera eramateko erraztasuna denen partetik bermatzea.</p> <p>Kooperazio adibide batzuk honakoak izan daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Joko edo ariketarako ideiak eta aholkuak ematea.</li><li>- Txandak errespetatzea.</li><li>- Informazioa eman eta jasotzea.</li><li>- Adostutako ariketak edo ekintzak burutzea.</li><li>- Adiskidetasun eta laguntasunarekin lotutako portaerak.</li><li>- Positiboki eta era egokian parte hartzea.</li></ul> <p>Elkarbanatzeak bestetik exijitzen du; beste pertsonai objektu bat eskaini edo ematea, objektu bat txandakatzuz erabiltzea, norbanakoaren gauzak besteek erabiltzen uztea, besteei gauzak eskatzea, e.a. Laburki, eskatzen eta uzten jakitea da.</p> <p>Irakasleak elkarrizketa hasiko du bi kontzeptu hauen ulermenera ailegatzeko eta honetarako, ikasleen ezaugarri espezifiketatik habiatuko da. Honela bada, ikasleei trebetasun hauek praktikan jarriko liratekeen egoera zehatzen adibideak emateko eskatzen zaie.</p> <p><i>“Nork eman ditzake zerbait besteekin komunean zerbait egiteko (joko, ariketa, lana) eta kooperazioaren inguruko bi adibide? Zer egin zenuten? Nola antolatu zineten? Nola atera zen? Zer moduz egon zineten? Nola sentitu zinen? Nolakoa izan zen besteen jarrera?”</i></p> <p><i>“Nork jarriko ditu besteekin zerbait elkarbanatzearen inguruan? Noiz egin zenuen? Nola sentitu zinen? Nola uste duzu beste haurra sentitu zela? Zergatik uste duzu horrela sentitu zela?”</i></p>	

- Ikaslegoarentzat garrantzia:

Ikasleentzat oso garrantzitsua da beste hurrekin jolas zein ariketetan kooperatzea, eta hauekin gauzak elkarbanatzea. Hurrek normalean kooperatzen eta elkarbanatzen duten ikasleekin egoteko nahia dute.

“Ametz, zer pentsatuko zenuke zurekin jolasten den hurrak txandak errespetatuko ez balitu? Nola sentituko zinateke? Eta inoiz kooperatzen eta parte hartzen ez duen hurre izango balitz?; Zer irudituko litzaizuke zure ikaskideak egiten ari zaren lanerako aholkuak emango balizkizu? Nola sentituko zinateke? Ikaskide horrekin egotea gustatuko litzaizuke?”

- Aplikazioa:

Irakasleak elkarrizketa zuzenduko du elkarbanatzea eta kooperatzea beharrezkoa den egoeretara, honela ikasleek ikusi dezaten nola eguneroko egoera askotan hauen aplikazioa ezinbestekoa den. Irakasleak eman ditzakeen adibide batzuk honakoak izan litezke elkarbanatze kontzepturako: norbaiti errotulagailuen estutxea ahazten zaionean, ikasleak dauden lekuan (gela, patioa, ...) objektu gutxi daudenean eta txandakatzeak beharrezkoak direnean. Bestetik, kooperazio kontzepturako beste adibide hauek eman daitezke: futbol partidu bat jolasteko, ezkutaketara jolasteko, ateraldi bat taldean antolatzeko.

## 1.2. Trebetasunaren osagarriak eta burubiderako pauso zehatzak

Kooperatzeko eta elkarbanatzeko, ezinbestekoak dira puntu hauek kontuan hartzea:

- Txandakatzeak erabiltzea ariketa edo jolasaren kontrolean.
- Aktiboki parte hartzea, jardunaren garapena erraztuz. Adibidez, burubide edo aholkuak emanez eta besteenak errespetatuz, ideia berriak eman joko edo ariketa hobetzeko, e.a.
- Laguntza eskatzea eta besteen beharrak kontuan hartzea, hauei egoki erantzunez.
- Animatzea eta errefortzuak eta goraipamenak egitea (ikusi Fitxa 1).
- Joko, elkarrizketa edo ariketaren arauak errespetatu eta jarraitzea.
- Era egokian eta positiboan parte hartzea.
- Irabazten eta galtzen jakitea.
- Norbanakoaren objektu pertsonalak besteekin elkarbanatzea.
- Besteek utzitako objektuak ondo zaintzea eta egoki erabiltzea.

## 2. Moldelatzea:

Irakasleak eta ikasleek egoera ezberdinetan trebetasun hauek aplikatzeko adibideak eman eta ereduak egingo dituzte.

Gauzak eskatzeko edo utzi dizkiguten gauzeekin lotutako trebetasunen adibidea:

*“Errotulagailuak ahaztu zaizkit eta gelan ariketa bat egiteko beharrezkoak izango ditut. Zer egin dezaket? Nekaneri eskatuko dizkiot, beste gelakoa denez ez dituelako ordu horretarako beharko. Hau egin beharko dut beraz:*

*Berarengana hurbildu, nire arazoa azaldu eta errotulagailuak eskatuko dizkiot. 'Nekane, fabore bat eskatu behar dizut...' uzten dizkidanean, kontu handiz zainduko eta erabiliko ditut ez hausteko. Erabili eta gero, itzuliko dizkiot eskerrak emanez 'Mila esker uzteagatik, fabore handia egin didazu. Noizbait zerbaiten beharrean bazaude, badakizu non egongo naizen.' ”*

Honela bada, irakasleak gauzak elkarbanatzeko ereduak aspektu hauetan oinarrituko ditu:

- Era onean eta egokian egitea.
- Beste pertsonari norbanakoaren objektuaren erabileraren inguruan azaltzea (beharrezkoa bada) eta noiz itzuli beharko duen esatea.

- Modelatzerako iradokizunak:

- Amiari bizikleta uzten diozu buelta bat eman dezan.
- Enekok beharrezkoa duzun liburu bat utzi dizu.
- Bost ikasle zarete gela dagoen modua ez den beste batean ordenatu behar duzuenak. Ados jarri behar zarete.
- Parkean txirritara igotzerakoan errenka errespetatzen duzu.
- Beste bi hurrekin puzzle bat egiten ari zara. Txanda errespetatzen duzu eta pieza, dagokizunean jartzen duzu.
- Edari bat erosi nahi duzue baina ez zaizue dirua ailegaten. Bien arteko diruarekin bai.

### 3. Praktika:

#### 3.1. Dramatizazioa:

Trebetasun hauen irakaskuntzak, behin eta berriz entseatzea eta praktika etengabea exijitzen du. Honetarako tutoreak eskatuko die ikasleei ariketa kooperatiboetan dramatizaziorako parte-hartzea, kooperatzeko eta elkarbanatzeko beharrezkoak diren portaerak azpimarratuz. Adibideak:

- Taldearentzat material bakarra du tutoreak. Elkarbanatu beharko dute eta koordinatuz erabili.
- Irakasleak jolas bat proposatuko du eta ikasleei eskatuko die joko hobetzeko proposamen eta ideiak adieraztea.
- Tutoreak ariketa bat bidaliko du eta ikasleei hau gauzatzeko material ezberdinak emango dizkie. Ikasleek ezingo dute ariketa burutu material gehiagoren beharra izango baitute. Haien artean koordinatu beharko dira materialak elkarbanatuz.

Irakasleak, ariketa eta joko kooperatiboetan, ikasle lotsati eta inhibituenak estimulatuko ditu haiek ere parte har dezaten. Bide batez, gehiegi aktiboak diren ikasleengan saiatu beharko da hauek gehiegi parte hartu ez dezaten, beste ikasleak ez blokeatzeko.

Trebetasun hauen ikaskuntza prozesuan, irakasleak elkarrizketa ezberdinak bideratuko ditu ikasleek entrenamenduko alderdi nabarmenak hitzez azaldu ditzaten. Komenigarria izango litzateke momentura arte gertatutako gauza interesgarriak birgogoratzea eta hauen sintesi bat egitea. *Ikasitako gauzetatik*

zer jarri duzu praktikan? Zer ikasi duzu? Egunerokotasunean ze gauzek eskatzen dizute esfortzu gehien? Entrenamenduan ikusitakotik, zer interesatzen zaizu gogora araztea?

### 3.2. Praktika aproposa:

Tutoreari, egunerokotasunean eta testuinguru naturalean, kooperazio eta elkarbanatzean oinarritutako portaeren inguruan aritzea komenigarria iruditzen bazaio, ikasleak zirikatatu eta bultzatuko ditu hauek aurrera eramateko (adibidez, gelan aurkezten den edozein arazoaren inguruan proposamenak egitea, inauterietako jaialdirako ideiak ematea, e.a.). Tutoreak hau ahal den momentu guztietan egin behar du, egoera ezberdinetan, pertsona desberdinekin eta momentu ezberdinetan. Honela bada, orokortzea eta transferentzia ziurtatuko du.

### 4. Feedback eta Errefortzua:

Praktika garatzen ari den bitartean, tutoreak ikasleak behatu eta orientatu behar ditu. Praktikaren momentu berean eta ostean ikasleen jardunean Errefortzua eman behar du ikasleek aurrera eramandako trebetasunen gauzatzean alderdi positiboak indartuz eta azpimarratuz (*Zorionak Jone!, Oso iradokizun onak eman dituzu*). Gauzatzea guztiz egokia izan ez bada ere, aurreko saioetan oinarrituz, hobekuntzetan errefortzua eman behar zaie. (*Amaia, lehen baino askoz ere hobeto egin duzu. Oso era egokian eskaini diozu Aneri zure baloia.*).

### 5. Etxerako lanak

Trebetasun hauen barneratzea prozesu mantsoa denez gero, eta etengabe landu behar denez gero, garrantzitsua da tutoreak ikasleei eguneroko ekintza eta testuinguru naturaletan ariketa txikiak bidaltzea, entrenamendua hasten den momentutik aurrera. Honek erraztuko du trebetasunaren orokortzea.

#### o Ariketetarako iradokizunak:

- Ariketa eta/edo jolasetan kooperatzen eta elkarbanatzen duten umeak behatzea, helduak barne.
- Beste hurrekin asteburuan norbanakoaren objektu pertsonalak, paga edo jolasak elkarbanatzea.
- Ikaskideekin gela barruko lanetan kooperatzea.

## BEHAKETAK:

### 1. Erlazionatutako trebetasunak:

- o Mesedeak
- o Besteei errefortzua ematea.
- o Laguntza.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Asher, S.R. eta Hymel, S. (1981). Children's social competence in peer relations: Sociometric and behavioural assessment. En J.D. Wine, y M.D. Smye (Eds.). *Social competence*. New York: Cambridge University Press.

Caballo, V. (1993). *Manual de evaluación y entrenamiento de las habilidades sociales*. Madrid: Siglo XXI.

Caballo, V. (1988). *Teoría, evaluación y entrenamiento de las habilidades sociales*. Valencia: Promolibro.

Clemente M. y Gil, F. (1985). *Prevención y tratamiento del comportamiento delictivo: contribuciones desde una perspectiva psicosocial*. Psicología social y aplicada, Bilbao.

Echeita, G. (2005). Didáctica de las Ciencias Experimentales. *Perspectivas y dimensiones críticas en las políticas de atención a la diversidad*. Alambique.

Fernández-Ballesteros, R. y Carrobles, J.A. (1991). *Evaluación conductual*. Madrid; Pirámide.

Fernández-Ballesteros, R. (1994). Características básicas de la evaluación conductual. En R. Fernández-Ballesteros, *Evaluación conductual hoy*. Madrid: Pirámide.

Gil, F. (1993). Entrenamiento de las habilidades sociales. En Vallejo, M.A. Y Ruiz, M. (Eds). *Manual práctico de modificación de conducta*. Madrid: Fundación Universidad-Empresa.

Hops, H., y Greenwood, C.R. (1988). Social skill deficits. En E.J. Mash, y L.G. Terdal (Eds). *Behavioral assessment of childhood disorders*. New York: Guilford.

Kelly, J. A. (1987). *Entrenamiento de las habilidades sociales*. Bilbao: DDB

Linehan, M. (1984). Interpersonal effectiveness in assertive situations, en E.A. Bleechman (comp.). *Behavior modification with women*. Nueva York: Guildford Press.

Ladd, G.L. y Asher, S.R. (1985). Social skills training and children's peer relations. En L. L'Abate, y M.A. Milan (Eds). *Handbook of Social Skills Training and Research*. New York: John Wiley and Sons.

Machago, J. (1996). *Programa para el desarrollo de la autoestima PADA*. Madrid: Escuela Española

Martínez Paredes, M. (1992). Aplicaciones del entrenamiento en habilidades



sociales en prevención primaria. Estudio de los efectos diferenciales de la aplicación de un programa dirigido a madres e hijos. Murcia: Tesina de Licenciatura no publicada.

McFall, R. M. (1982). A review and reformulation of the concept of social skills. *Behavioral Assessment*, 4, 1-33.

Meichenbaum, Butler y Grudson (1981). Toward a conceptual model of social competence, en J. Wine y M. Smye (comps.) *Social competence*. Nueva York; Guilford Press.

Michelson, L., Kazdin, D.P., Sugai, D.P. Y Word, R.P. (1987). *Las habilidades sociales en la infancia*. Barcelona: Matrínez Roca.

Monjas, M.I. (1996). *Programa de enseñanza de habilidades de interacción social*. Madrid:CEDE

Monjas, M.I. y Arias B. (1990). Habilidades sociales y problemas de conducta. *Simposio internacional sobre Problemas de Conducta en el aula*. Oviedo: MEC.

Monjas, M. I.; de la Paz, B. (2000). *Las Habilidades Sociales en el Currículo*. Convocatoria de ayudas a la investigación educativa para 1995 del Centro de investigación y documentación educativa (CIDE). Octubre 1998. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Colección investigación

Moliner, O. Y Sales, A. (2005). (Eds) *Estrategias de atención a la diversidad en la Educación Secundaria*. Castell: Universitat Jaume I.

Moyano, G. (1992). *Aprendo a relacionarme*. Valencia: Promolibro.

Palmer, P. (1991). El ratón, el monstruo y yo. Traducción y adaptación T. Bonet. Valencia: Promolibro Ed. Cinteco

Pérez, I.P. (1998). *Las habilidades sociales en el marco de la orientación psicopedagógica*. Tomo I. Barcelona: Wolters Kluwer.

Rimm D.C. y Masters J.C., (1974). *Terapia de la conducta*. México: Trillas

Sanchiz, M<sup>a</sup>.L.eta Traver, J.A. (2006). La Educación en el siglo XXI: *Necesidad de educar las Habilidades Sociales*. Jornadas de orientación e Intervención Psicopedagógicas. Ámbito educativo y profesional. Universidad Jaume I.

Serrano, A. Y Quintero, G. (2002). Los factores socioculturales de la violencia y su incidencia en la educación. En análisis sociológicos, 8 (mayo)

Trower, P. (1984). A radical critique and reformulation; from organism to agent, en P. Tower (comp.). *Radical approaches to social skills training*. Londres: Croon Helm.

Vallés, A. (1988). Modificaciones en la conducta problemática del alumno. Alcoi:

Marfil.

Vallés, A. (1994). *Programa de refuerzo de las habilidades sociales*. 3Vols. Madrid: EOS.

Vallés, A. y Vallés C. (1996). *Las habilidades sociales en la escuela. Una propuesta curricular*. Madrid: EOS.

Wilkinson, J. y Canter, S. (1982). *Social Skills training manual: Assessment, programme design and management of training*. Chichester. Wiley.